

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 20a / 744. zenbakia

UDALA/ Ezker Batua bota egin dute udal gobernutik

EBk dio udal gobernutik doazela, baina 'burua tente eta eskuak garbi' dituztela

UBANE MADERA

Ezker Batua alderdia udal gobernutik kanpo da oraingo asteaz geroztik. Astelehenean hartu zuen behin betiko erabakia Tokiko Gobernu Batzarrak. Gero, alkateak horren gaineko dekretua sinatu eta urtarrilaren 30eko osoko batzarrean aurkeztu beharko du.

Inazio Lakuntza alkateak zera azaldu du: Zerrajera inguruan La Caixak egin nahi zituen etxebizitza sozialak direla-eta, Ezker Batuak erakutsitako jarrerarengatik bota dutela alderdi hori udal gobernutik. Kontua da La Caixaren etxebizitzak egin ahal izateko, Egitamu Orokorra aldatu egin beharko dutela. Eta Egitamu Orokorra aldatzeko gehien-go osoa behar duela udal gobernuak. EBk, berriz, proiektu horren kontra bozkatu zuen. Eta alkateari jakinarazi dio proiektu hori egiteko Egitamu Orokorra aldatzearen kontra bozkatuko dutela. Are gehiago, EBk helegitea aurkeztu du La Caixaren proiektuaren kontra. Alderdi horren ustez, Udalak ezin dio saldu lurzoru publikoa entitate pribatu bati, beraz, legez kanpoko operazioa dela hori.

Alkatearen esanetan, berriz, Ezker Batuak bazekien proiektu horri ezetza emanez gero, udal gobernutik kanpo gelditzeko arriskua zutela. "Zaila da egotea gobernu talde moduan eta oposizioa egitea". Hala esan du Inazio Lakuntzak. Orain, alkateak iragarritako arrisku hori bete egin da.



Jose Antonio Baz, Ander Rodriguez eta Joseba Ugalde zinegotziek laster utzi beharko dute udaletxeko bulegoa.

rudiela alkateak "ezkutuko interesak" dituela gai horretan.

Horrez gainera, Eusko Alkartasunak eta Aralarrek izan duten jarrera ere salatu zuten prentsaurrekoan: "Jokoan dago etxebizitza duina izateko pertsonak duten eskubidea. EArendako eta Aralarrendako mendetasun kon-

Arrasateko alkatea
'euskal labeldun
espekulatzaila'
dela salatu zuen
Ezker Batuak

tu bat da; guretako, berriz, printzipio kontu bat".

'ALKATE ESPEKULATZAILEA'

Baina batez ere alkatearen jarrera eta lan egiteko modua kritikatu zituen Ezker Batuak: "Bi urte eta erdi eskasean, alkatea gure herriko espekulatzaila nagusi bilaka-

tu da". Inazio Lakuntza Marbellako alkate ohi Julian Muñozekin konparatu zuten, esanez Lakuntza dela "euskal labeldun espekulatzaila". Joseba Ugaldek jakinarazi zigun, esaterako, orain dela urtebete Atxabalpeko lurretan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke proposamena egin ziotela alkateari. Baina urtebetereen ostean ez dutela erantzunik jaso: "Zorua gordetzen dabilta, gero espekulatzeko".

LA CAIXAREN KASUA

La Caixaren proiektua dela-eta, berriz, salaketa ugari egin zituen EBk. Esaterako, salatu zuen Zerrajerako gune horretarako hiruko eskaintza jaso zituela Arrasateko Udalak; eta alkateak, aldiz, biren berri bakarrik eman ziela gainerako alderdiei. Joseba Ugaldek proiektu horren garrantzia nabarmendu zuen: "Caixa entitate pribatua da eta, gainera, etxeak egin eta 15 urtera etxe haiek saldu egin ditzake" (...) "Gogora ekarri zuen, baita ere, Eusko Jaurlaritzak egingo lituzkeen babes ofizialeko etxebizitzetako bat eskuratzeko, 3.000 euroko diru-sarrerak behar direla; eta La Caixaren etxebizitzetako bat eskuratzeko, berriz, 9.000 euro pasatxoko diru-sarrerak behar direla.

ESANDAKOA EZ BETE

Bestalde, Joseba Ugaldek salatu zuen alkateak hasiera-hasieratik ez duela bete eurekin hitzartutakoa: "Udal gobernura sartzea negoziatu genuenean, alkatearekin hitzartu genuen Ingurumen eta Hirigintza sailak gure ardurara izango zirela. Baina dekretuak egiteko orduan, Hirigintza Saila ez zigun eman". Halaber, esan zuten behin baino gehiagotan jaso dituztela mehatxuak alkatearengandik proiektu jakin baten alde egiteko.

'ESKUAK GARBI ETA BURUA TENTE'

Bukatu aurretik, Joseba Ugaldek Udalean lankide izan dituen teknikariei egindako "lan gogorra" eskertu nahi izan zien. Eta Ander Rodriguez zinegotziak, berriz, zera esan zuen: "Gu ez gara EAJren sukurtsal bat. Gu goaz burua tente dugula eta eskuak garbi ditugula".

Bestelako desadostasun puntuak

La Caixaren proiektuarekin ez ezik, bestelako desadostasunak ere izan ditu EBk 2003tik hona. Lau dira nabarmenak: harrobien proiektuen kontrakoa da EB (San Josepe eta Udaltx); kultura etxearen kasuan Udalak hartutako erabakien kontra egin zuen (besteak beste, eraikina erosteko 600.000 euro ematea frantziskotarrei); hiltegia ixtearen kontra egon dira eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago egitearen alde. Beste desadostasun

batzuk ere aipatu zituzten, besteak beste: Haurreskola partzuergoaren alde egin zuen EBk; EAK eta EAJk ez bezala. Eta ordenantza fiskaletan abstenitu egin ziren, familia ugari aplikatzen zaizkien hobariak gizarte zerbitzuen beharra duten gainerakoei ere aplikatzea eskatu zutelako. Urbanoaren zerbitzua murriztearen kontra ere bozkatu zuen EBk; baita ere, udal langileen soldata igoera eurekin hitzartu barik egitearen kontra.

INTERES PARTIKULARREN ALDE

Ezker Batuak prentsaurrekoa egin zuen eguaztenean bere ikuspuntua azaltzeko. Joseba Ugalde bozeramaileak argi utzi nahi izan zuen udal gobernutik bota egin dituztela, "euren mehatxuak ez onartzearen eta gure babesa ez ematearen Zerrajera gunearen ordenazioa aldatu eta legeari iruzur egin ahal diezaioten". Halaber, salatu zuen La Caixaren egitasmoaren kasuan gutxi batzuen interesa interes orokorraren gainetik ipini dutela eta ikusita EBren jarrerak piztu duen ika-mika, badi-

Tratu txarrak arazo sozial direla azpimarratu zuten

UBANE MADERA

Bikoteen artean gertatzen diren tratu txarren gaineko hitzaldia izan zen oraingo eguaztanean Emakume Txokoan. Iruñeko Abegi Etxeko Mertxe Artza eta Olga Beortegik egin zuten berba. Argi Berria elkarteak dira biak. Besteak beste, esan zuten prebentzioa landu beharra dagoela orain.

“Guk kudeatzen ditugun zerbitzu guztiak doakoak dira eta daude zuzenduta etxetik alde egin behar duten emakumeei”. Kontatu digute 1998tik dabilzala lanean. Oro har, hiru zentro mota kudeatzen dituzte: larrialdietarako zentro bat, abegi edo harrera etxea eta erresidentzia.

ARAZO SOZIALA, KONPONBIDE SOZIALA
Dena dela, eta halako zerbitzuen behar argia dagoen arren, tratu txarren prebentzioan lan egin behar dugula nabarmendu digu Olga Beortegik: “Zorritzarez, genero indarkeria problema soziala da. Beraz, hezkuntzarekin lotutako neurriak erabili beharko ditugu gai horri aurre egiteko epe luzera begira. Hezkuntza proiektuak eta

proiektu sozialak beharrezkoak dira. Izan ere, 2003tik hona asko handitu da tratu txarren kontrako neurri polizialen eta judizialen erabilera. Horiek beharrezkoak dira baina horiekin ez da nahikoa. Ahaztu egiten dugu neurri sozialak ezinbestekoak direla. Eta prebentzioarekin batera, oraingoak baino laguntza integralagoak eman beharko lirake. Ezin dugu ahaztu indarkeria jasan duen emakumeak mota askotako laguntzak behar dituela egoera horretatik ateratzeko, ez delako bakarrik aterako. Behar ditu laguntza ekonomikoak, lanerako laguntzak...”

GARAPEN POSITIBOA

Edozelan ere, tratu txarren gaia indartu zenetik hona, garapen positiboa izan dela uste du Olga Beortegik: “Pausoak ematen dabilza, baina oraindik asko falta da egiteko. Orain arte hartu dituzten legearekin lotutako neurriak ez dute arazoa gaintutuko, arazoa soziala delako”.

SALAKETA ARGI IZAN BEHAR

Bestalde, askotan entzun izan dugu indarkeria kasuetan salaketa egitea gomendatzen dutela. Bada bestelako iritzia dute Iruñeko Abegi

Etxekoek: “Guk gomendatzen dugu tratu txarrak jasan dituen emakumeren baten kasua lantzen dutenek, emakume horri gaintutu beharreko arazo guztien berri eman beharko diotela. Abisatu beharko diote epaitegi batera jo beharko duela, akaso bere erasotzailea berriro ikusi beharko duela...Eta gero berak erabaki dezala nahi duen edo ez duen nahi salaketa ipini. Dena dela, guk kudeatzen ditugun zerbitzuetan, salaketa ipini edo ez, berdin etor daitezke; eta etorkinen kasuan, paperak izan ez arren, haiek ere berdin-berdin etor daitezke. Puntu horiek oso garrantzitsuak dira”.

HIRU ZERBITZU

Gobernuz kanpoko Argi Berri erakundeak hiru zerbitzu eskaintzen ditu Iruñean. Etxean tratu txarrak jasan dituzten emakumei eta haien seme-alabei zuzendutako zerbitzuak dira: larrialdi kasuei aurre egiteko zentro bat, zazpi egunetik hilabete batera arte egon daiteke han emakumea. Abegi etxea; hor ei hilabetetik urtebetera arte gera daitezke. Eta azkenik, etxebizitza-erresidentzia zerbitzua, urtebete eta bi urteren artean erabiltzekoa”.

Genero indarkeria problema soziala da eta hezkuntzarekin lotutako neurriak behar dira

Salaketa emakumeak gura badu bakarrik ipini behar da; bestela ez

Guk kudeatzen ditugun zerbitzuetara salaketa barik ere etor daitezke

Natale Landa: “Ikuspegi juridikotik ez dut ulertzen”

U.M.

Natale Landa 18/98 sumarioan inplikatur dago. Baina egunotan atzeratu egin da epaiketa hori, urtarrilaren 30era arte. Ogibidez abokatua da Natale Landa. Inplikatur eta abokatua da, beraz. Epaiketa horren gainean berba egin du Arrasate Irratian.

“Nik askotan esaten dut Zuzenbidea ikasi nuela eta uste dut Auzitegi Nazionalan, eta bereziki epaitzen ari gaituzten epaileek beste lege batzuk, beste ordenamendu juridiko bat erabiltzen dutela. Nik ez dut gehiegi ulertzen, behintzat, ikuspegi juridikotik eta Zuzenbide garantista baten ikuspegitik, behintzat”. Halaber, bestelakoen artean, gaineratu zuen epaiketan hutsune ugari daudela: “Hasi egin behar zelako hasi zen epaiketa; izan ere, berez, uste dut sumarioa ez



Defentsa egokia egin ahalko duten zalantzak dituela esan zuen Landak irratian.

dagoela epaiketa bat hasteko moduan, edo behintzat, prozesuaren eskubideak defendatzeko prozesua gertu ez dago gaur egun” (...) “Milaka eta milaka orriz osatutako sumarioa da, horrek ekartzen duen zailtasun guztiekin”. Natale Landak kon-

tatu zigan, esaterako, 75/89 sumarioan 100.000 orri daudela, eta gainera, desordenatuta. Hori horrela, zalantzak ditu urtarrilaren 30ean berriro hasiko ote den epaiketa: “Zalantzak dauzkate 100.000 orri azter daitezkeen horren denbora gutxian”.



AMAGOIA LASAGABASTER

Besteak beste, Zubillagako suhiltzaileak izan ziren Arrasate pasealekuan.

Gas usaina eta kezka izan ziren Arrasate pasealekuan

J. IRIONDO/ U. MADERA

Oraingo asteko martitzenean, Arrasate pasealekuan alarma piztu zen handik pasatzen zirenen artean. Izan ere, gas usain handia barreiatu zen inguruan. Suhiltzaileak ere etorri ziren. Ez zen ezer gertatu.

Kontua da unibertsitatearen fakultatetik gertu dagoen gas biltegi batean mantentze lanak egiten ibili zirela. Propano biltegia urez garbitu zuten. Ur hura zen gas usaina botatzen zuena estolderiatik.

KONTU HANDIA

Edozelan ere, Zubillagako suhiltzaileak, Naturgaseko langileak eta Arrasateko udaltzainak joan ziren Arrasate pasealekura. Hala, usaina nondik zetorren ziurtatu eta neurketak egin ostean joan egin ziren; izan ere, neurketen emaitzek erakutsi zuten ez zegoela inolako arriskurik.

Orain dela hilabete pasatxo gas ihesa gertatu zen leku berean; baina oraingo gertaerarekin ez du zerikusirik. Bidea eta zenbait kale itxi behar izan zituzten orduan.



Salaketak eta protesta ekitaldiak

Aitor Elortza errefuxiatuaren heriotza salatuzko deitu zuten kale agerraldia martitzenean. Horrez gainera, asteburuan Batasunak BECen egin behar zuen kongresua debekatu zutela eta Batasunaren ilegalizazioa berretsi zutela-eta, horren gainean ere protesta egin zuten. Lekuko arabera, 70 bat lagun elkarrekin ziren protesta egiteko PSE-EEren egoitzaren aurrean. /U.M.

LABUR

Informazio eta izapidetze (tramitazio) agente izateko bost lagun kontratatuko ditu Udalak

Bost agente horiek kontratatuzko deialdi publikoa egin du Udalak. Interesa duenak otsailaren lehenengo astera arteko epea du izena emateko. Eskola Graduatua, LHI edo baliokidea behar dira. Portaloian Udalak izango duen harrera bulegoan lan egin beharko dute bostok. Besteak beste, herritarrei informazio ematea, haien kezak argitzea eta zenbait burokrasia kontu egitea izango da euren lana.



Joan den maiatzaz geroztik dago itxita Garagartzako automobilendako garbigunea.

IKER BARANDIARAN

Maiatzerako edo ekainerako garbigunea zabaltzea espero dute

U.M.

Udaleko Ingurumen Saitetik jakinarazi digutenez, udaberri amaiera inguruan espero dute zabaltzea Garagartzako automobilentzako garbigunea. Maiatzean urtebete egingo du itxi zutela, berritze lanak egiteko. Baina dezente atzeratu zaizkie lanok, aurkitu duten kutsadurarengatik.

Kontua da handik pasatzen den kolektorearendako zuloa egin zutenean, olio isurketak aurkitu zituztela Garagartzako garbigunean. Eta isurketek inguruko lurra kutsatu zituztela. Ingurumen Saileko teknikari Rafa Ugartek jakinarazi digunez, olio biltegiak hainbat alditan gainezka egin duelako gertatu dira isurketak: "Udalak biltegiaren zaindaria egiten zuen, baina gertatu izan da biltegia ia beteta zegoela ikusita ere jendeak olio bota eta bota egitea, gainezka egin arte; eta Udaltetik joan orduko, olio gainezka eginda zegoen".

Hala, garbigunearen berritze lanak egin baino lehenago, kutsatutako lurra eta kendu egin behar zituen derrigorrez Udalak. Hain zuzen ere, biltegia hustu eta joan den astean erretiratu zuten. Kutsatutako lurra ere atera dituzte, eta horiek, berriz, oraingo astean ziren eramatekotan; hori zen asmoa. Horren ostean, zuloa tapatu beharko dute. Hori ere astean egitekotan ziren. Horrekin bukatutzat emango dira azaldu den kutsadura garbitzeko lanak. Horren guztiaren ostean, gunea gertu dute hasierako Udalarren asmoak betetzeko: garbigunea birmoldatzeko, alegia.

Kutsadura aurkitu dute garbigunean, eta horrek atzeratu ditu birmoldaketa lanak

HIRU BAT HILABETE

Rafa Ugartek esan digu espero duela hiru hilabetez bukatuko dituztela birmoldaketa lanak. Hala, espero du maiatzerako edo ekainerako zabaldu ahal izango dutela Garagartzako garbigunea. Birmoldaketa lanekin garbigunea goitik behera berritzeko asmoa dute; besteak beste, olioak batzeko sistema berritu egingo dute.

APURKETAK ETA LAPURRETAK

Bestalde, jakinarazi digu garbigunean apurketak izan direla behin baino gehiagotan, baita lapurretak ere. "Automobilak garbitzeko mangera apurtu eta eramane egin izan dute. Eta ez hori bakarrik; garbigunea itxita egon den urte honetan, jende asko sartu egin da autoa garbitzera".

ALDAKETAK ERABILERAN

Hori guztia ikusita, Udala pentsatzen dabil akaso beste erabileraren bat zehaztea. "Ideia besterik ez da, baina ordutegia edo halako zerbait ipintzea pentsatzen gabiltza".

Abiadura Handiko Trenari alegazioak egin dizkiote

U.M.

Abiadura Handiko Trena dela-eta, datorren martitzenean, hilak 24, Arrasateko zenbait lursail desjabetzeko okupazio aktak jasoko dituzte. Zundaketak egiteko lursailen okupazio aktak dira horiek.

Orain dela hiru urte zundaketak egiten hasi ziren Arrasaten, Aramaioren eta Eskoriatzan, trena eraike ahal izateko. Baina zenbait lurjabeek ez zieten zundaketak egiteko baimenik eman. Joan den abenduan, berriz, baimena eman ez zuten lurjabe horien zerrenda argitaratu zuten Estatuko buletinean eta jakinarazi zuten lursailak desjabetuko zirela.

Halaber, jakinarazi zuten martitzenean, hilak 24, Arrasatera etorriko direla lursail horien okupazio aktak jasotzera. 16:00etatik 20:00etara egin dute hitzordua osoko bilkuren aretoan. Arrasateko oraingo desjabetze prozesuak zazpi lagunengan du eragina. Zazpiak Gesalibar auzokoak dira.

INFORMAZIO FALTA

Hala, kaltetu horietako batek, Saatxo baserriko Floren Pagaldaik

esan digu Gesalibarkoek ez dituztela euren kabuz alegaziorik aurkeztu. Aramaioko eta Eskoriatzako lurjabeekin bat egin eta alegazio berak aurkeztu dituztela. Besteak beste, esan digu informazio falta igarri dutela Madrillgo Sustapen Ministeriotik bidalitako txostenetan. "Obraren eraginez ateratako lurra botatzeko zabortegiak non eraikiko dituzten ez dakigu, esaterako. Plano garbirik ere ez dute bidali". Horrekin batera, gaineratu digu ez dutela oso argi, baina printzipioz ez dutela datorren asteko okupazio aktak sinatzeko asmorik.

BAIMENAK ESKATU BEHAR

Arrasateri dagokionez, Hirigintza Sailak ez du martitzeneko prozesuaren gaineko alegaziorik aurkeztuko. Baina zenbait jakinarazpen egin dizkiote Sustapen Ministerioari. Asteko gobernu batzarrean landu dute gaia. Udalak esan die kontuan hartu behar dutela zenbait zundaketa egiteko baimenik ez dutela; baita ere baimena eskatu beharko dutela lanak egiteko bide berriak zabaltzeko eta baserri-bideak erabiltzeko. Horrez gainera, jakinarazi dio desjabetze planoak ez dutela bidali.

Kutsadura aurkitu dute garbigunean, eta horrek atzeratu ditu birmoldaketa lanak

Apurketak eta lapurretak izan dira; horregatik akaso aldatu egingo dute erabilera

LABUR

Film laburren lehiaketa eta feminismoaren erronken gaineko hitzaldia, Txokoan

Emakume Txokoak antolatu du film laburren lehiaketa. Hala iragarri du urtariletik martxora arteko egitarauan. *Emakumeak Arrasateko Historian* izenburua ipini diote lehiaketari. Eta ekainera arteko epea ipini dute lanak entregatzeko. Bestela, oraindik ez dituzte gainerako oinarriak zehaztu; dena dela, lehenbailehen zehaztuko dituztela esan digute. Bestalde, otsailerako ekimenen artean, *Feminismoaren Erronkak* izeneko hitzaldia antolatu dute. Galiziako Ana de Miguel izango da hizlaria. Besteak beste, Coruñako unibertsitateko irakaslea da.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketen teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 € ARRASATE € Tel.: 943 79 81 82

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 20**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ZAPATUA, 21**
Azkoaga. Ferrerías 1. 943 79 15 15
- DOMEKA, 22**
Azkoaga. Iturríotz 17. 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 23**
Corcuera. M. Aranbarri 1. 943 79 22 26
- MARTITZENA, 24**
Irizar. Erguin 11. 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 25**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74
- EGUENA, 26**
Español. Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 27**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Delak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak. 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate. 943 79 71 99
- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57
- MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

- MEZAK**
- | | |
|-------------------------------|-----------------------------|
| San Juan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua | Zapatua |
| 19:00 (elebiduna) | 19:00 (elebiduna) |
| Domeka | Domeka |
| 09:00 meza nagusia | 10:00 (gaztelaraz) |
| 11:00 meza nagusia (euskaraz) | 11:00 (euskaraz) |
| 12:30 (elebiduna) | 12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua | Domeka |
| 19:00 (elebiduna) | 12:30 (gaztelaniaz) |
| Domeka | Santa Marina eliza |
| 09:00 (euskaraz) | Jaiegun bezpera eta zapatua |
| 10:00 (elebiduna) | 19:00 (gaztelaniaz) |
| 12:30 (elebiduna) | Domeka |
| 19:00 (elebiduna) | 11:00 (elebiduna) |
| Uribarri parrokia | San Isidro |
| Zapatua | Domeka |
| 19:00 (elebiduna) | 12:30 (gaztelaniaz) |
| Domeka | |
| 12:00 (elebiduna) | |

OHARRAK

IPUINEKIN BELDURRA UXATU
Eguenean, hilaren 26an, Juan Carlos Alonso psikologoak *Beldurra ipuinetan* berbaldia egingo du Monterronen, 18:30ean. Batez ere, gurasoei eta umeen hezitzaileei zuzenduta dago.

IGERILEKUAN ALDAKETA
Bihar, zapatua, Musakolako igerilekua itxita egongo da, igeriketa txapelketa egingo dutelako.

ERAKUSKETA URIBARRIN
Uribarriko erretiratuen elkarteak ikusgai dago eskulanen erakusketa. Hilaren 24ra arte egongo da zabalik, 18:30etik 20:00etara bitartean.

URIBARRIKO NAGUSIENAK
Eguenean, hilaren 26an, 80 urtetik gorako auzotarrei omenaldia egingo diete Uribarriko erretiratuen elkarteak. Bazkaria eta guzti izango dute.

YOGA ETA MASAJEA
Arrasateko Yoga Elkarteak hainbat ikastaro abiarazi ditu: hilaren 23an hasi eta martxoaren 27ra arte, hastapeneko yoga ikastaroa egingo dute. Horrez gain, urtarrilaren 25etik martxoaren 29ra eta urtarrilaren 27tik martxoaren 31ra hastapeneko masaje ikastaroak egingo dituzte.

AEDrenAGENDA

SEASKA ETA DEBAGUNE
Seaskak eta Debaguneko argitaratutako egutegiak salgai daude AEDn. Debaguneko, urtero moduan, ibarreko argazki zaharrekin apainduta dago.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Al Andalus, egoitza zabaltzeko puntuan

1996. urterako Al Andalus elkar-teak 37 milioi pezetako aurrekontua hitzartu zuen. Urteko batzar orokorra egin zuten Musakolako egoitzan, nahiz eta egoitza horretako lan guztiak bukatu barik egon. Andaluziarrek hainbat ekintza iragarri zuten urte hartan egiteko.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pelaje"



— Ikusi dozu klanan semiak zelako pelajia daukan? —

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA **-1°C**
Egubakoitza, 13

MAXIMOA **12°C**
Astelehena, 16

ASTEKO EURIA (l/m²) **12,8 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	12°C	-1°C	- l/m²
Eguena, 12	11°C	-1°C	- l/m²
Egubakoitza, 13	10°C	-1°C	- l/m²
Zapatua, 14	11°C	1°C	- l/m²
Domeka, 15	12°C	-1°C	0,8 l/m²
Astelehena, 16	12°C	4°C	- l/m²
Martitzena, 17	11°C	2°C	12,5 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Aste honetako ibilbideen laburpena jasoko dugu 'Asteko gainbegiratu'-n

Hamaika lagun ditugu aste honetan ere Arrasate Irratiko autobusean. Arrasateko Natale Landa abokatua martitzenean izan zen gurean, 18/98 epaiketaren bilakaera azaldu asmatan. Landa auziperatua da eta barrutik bizi du epaiketaren ondoren, eta ogibidez abokatua bada ere, zaila egin zitzaion gertakariari arrazoirik bilatzea. *Aste-ko gainbegiratu*-n, baina, beste hainbat kontu ere izango dituzue. Jokin Antxia zailtasunak dituztenen Atzegi elkarte

kidearekin elkartu ginen. Film laburra egiten dabiltzala kontatu zigun eta lehiaketa batera eramango dutela. Irene Zenitagoiak, beriz, kamelia lora artean hartu gintuen.

EGUAZTENETAN MERKATU TXIKIA

Asteroko hitzordua dugu eguaztenean merkatu txikiaren geltokian eta entzuleek bidalitako oharrak jasotzen ditugu. Oharren bat baduzu, deitu 943 71 17 31 telefono zenbakira edo idatzi irratia@goiena.com-era.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**. Natale Landa abokatua; Jokin Antxia, Atzegi elkarteak kidea; Lorategiaren geltokian kameliak berbagai; Miriam Urkia, San Sebastian jaiaren gainean...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
10:00-12:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarriketak.
Meteorologiaren geltokia (Peio Zabala).
Ibili munduan geltokia.
Zozketak.
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 17:15 **Zorion agurren tarte (errep.)**

KALEINKESTA/ Basurtoko akzidentie dala-eta, Mondraguen badau leku peligrorik?




CASILDA REMIRO
Erretiraue



ARANTZA ARANTZABAL
Langillie



SYLVIE SCHIETTEKA
Langillie



ASIER AGIRRE
Langillie



BONIFACIO GOMEZ
Erretiraue



IÑAKI ZUBIZARRETA
Langillie

Zarugaldeko goiko partie ez dau bape ondo, leku guztiatik etorten die kotxiak, eta peligrorik da. Dana dala, Mondraguen leku asko dauz gehixau zainketie komeni dana.

Zarugalden, likorren den die eta pastelerixie dauen tartie ez dau bape ondo, jentie azkar ibiltten da-eta. Zona hori nahiko peligrorik da, baiñe ez dakit zein dan soluziñue.

Mondraguen zirkulaziño haundixe dau. Udala rotondan, adibidez, kotxe mordue ibiltten da. Umie ondiokan txikiñe da, baiñe bilddurre emungo dust eskolara bakarririk jueten ixtie.

Egixe esateko, Grupo San Juan ingurue ez dau bape ondo. Gaiñera, hor inguruen hainbat lekutan noranzkue kanbixau egin daue, eta kotxiak gora eta behera ibiltten die, mariaute.

San Andres auzuen, semaforue gorri jarten daniene jentiek aprobetxetan dau autobusan geltokittik sartzeko, eta hor ez da ezer pasau Jaungoikuek gure izen ez dauelako.

Kontue da oin momentuen obra mordue dauela Mondraguen, eta horreittako asko txarto señalizate. San Andresen, ospital inguruen, Garibain... Horreik izeten die peligrorik.

USTEAKUSTE

Gobernua

Ezin ukatu asteko albiste garrantzitsuenetakoa dela EAJk Ezker Batua udal gobernutik bota izana. Ezagun da bi alderdi politiko horiek euren artean desberdintasun nabariak dituztela, baina hori ez da arraroa. Alderdi bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu eta horiek agerian gelditzea da gauza arruntena. Baina gehien harritu eta kezkatzen nauena da negoziatzeko eta adostasuntara heltzeko ahalegin handiagoak egin ez izana. Eta hor zeresan handia du talde handienak, indar gehien izanda negoziatzeari uko egitearen tentazioa izaten duelako. EAEn ikusi dugu EAJrekin; eta Nafarroan, UPNrekin.

Oso keinu zaterra iruditzen zait. Are gehiago, aurrekontuak onartu berri direnean, gainera. Aurrekoan apatu nuen ezinbestekoa dela agintariak herritarrei entzutea, eta horretarako ez da adibide edo hasiera txarra udalean dauden beste taldeen iritziak ere aintzat hartzea.

Bestalde, alkateak esan du EBK udal gobernuaren barruan horri berorri oposizioa egin diola. Nik, berriz, beste kezka bat daukat udal gobernuko beste bi taldeekiko: igartzen da ekintza edo erabakietan hor daudenik? Badakigu benetan Aralarrek eta EAK zer iritzi duten hartu diren erabakien eta herriko hainbat gaien gainean?

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOENDAKO GARBI-GUNEA ASPALDITIK ITXITA

Hainbat herritarrek guregana jo dute, haserre, esanez Garagartza bidean dagoen autoendako garbi-gunea aspalditik dagoela itxita. Kontua da herritar askok erabiltzen zutela udal zerbitzu hori autoak, bizikletak edo bestelakoak garbitzeko, eta denbora luzean ezin izan dute erabili. "Orain dela urte erdi baino gehiago itxi zuten, konponketa edo hobekuntzaren bat egiteko asmoz, baina lanak ez dituzte hasi eta ez dirudi han ezer egin gura dutenik", adierazi digute.

ASTEKODATUA

5

LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIA EGIN DU UDALAK

Udalak informazio eta izapidezte agente izateko bost lanposturako deialdia egin du. Helburua da agente horiek Portaloian jarriko den herritarren harrera bulegoan lan egitea. Langile horiek herritarrei informazioa emango diete, eta haien kexak entzun.

HERRITARRENBERBAK/ Nerea Makazaga



Galderak eta erliebeak

Nik ere zapatak garbitzean betuna galdera ikurrean erliebetzen dut. Erliebeak eta galdera ikurrak. Harridura erliebetu nuen lehenengoz, zentzua galdu zuen eta ordutik, galdera bilakatu nuen. Galderak, azaleratu orduko, igurtzi eta xurgatuak izatera behartzen ditut. Xurgatuak zapatetan, xurgatuak trapu zaharrear. Zapatak igurztzen baditut zerbait islatuko den itxaropenez egiten dut. Trapu zaharra, galderak izan ditzakeen erantzun beltzak kitzeko baliagarri zait, islatu daitekeen erantzuna garbia izango delako orduan.

Argi dago, erantzunak eskaintzen dituzte zapatek, baina hauen mapetan irakurri behar da. Sarri irakurri behar da, momenturo bide bakoitza identifikatu eta harridura ez bihurtzeko.

Zapatak, pertsonalak dira, hortz eskubilak ere, pertsonalak diren bezala. Erantzunak ez dira pertsonalak, hauen irakurketa

da pertsonal bihurtzen duena. Horregatik, beste inoren zapatak janzten dituenetan ez da eroso sentitzen. Bere nahi eta beharretara moldatu zaizkio hasierako zapata berri haiek, poliki-poliki lautadak zabaltzen zaizkio, dagoeneko urrutirago egin dezake so.

Oh ez, zapatak ez zaizkizu zahartzen, baina bat-batean erantzunak elkar gurutzatzen dira eta mapa zaharretan galtzen zara. Lehenbailehen, zapatez desegiteko beharrak bereganatzen zaitu eta zakarrera botatzen dituzu,

infernutik datorren indarrak bultzatuta. Badakizu hilkutxa duin bat behar luketela horrenbeste babestu zaituzten zapatek. Baina erantzunen nahasketak, bide artega eta amaiera gabeek, inora eramango zaituzten beldurrak ikaratzen zaitu. Hasiera maitatzen duzu. Hasierara itzultzen zara. Zure zapatak zakarrean daude. Eta zakarrean badaude ere, zure arimaren zati bat zapata kutxa batera kondenu duzu betirako.

"Trapu zaharra, galderen erantzun beltzak kitzeko baliagarri zait, islatutako erantzuna garbia izango delako"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Kepa Martelo
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



GOIENKARIA

Indarrak pare-parean izan ziren joaneko norgehiagokan Zubikoan (25-25); Iturripen, emaitza hori ez da balekoa.

ESKUBALOIA/ Derbia Iturripen

Ford Mugarrik oñatiarren bisita izango du domekan

XABIER URTZELAI

Ford Mugarrikoek Arrikruz Oñatiko Kobak taldekoen kontra jokatu dute domekan Iturripen (11:00). Arrasatekoek beharrezko dute garaipena, besteak beste, lider dagoen Donibaneri tregorarik ez emateko.

Bigarren postuan dago Ford Mugarri, lider dagoen Donibaneri ondo estutzeko asmoarekin. Puntuçi dagokienez, bi talde horiek berdinduta daude (21 puntu), eta biek hala biek igoera fasea dute helburu. Horretarako, baina,

akats gutxi egin behar dira geratzen diren zazpi jardunaldietan.

Hala, Andoni Arandoren mutilek sailkapenean seigarren dagoen Arrikruz Oñatiko Kobak taldea izango dute domekan kontrario. Joaneko norgehiagokan egindakoa (25-25) hobetu behar dute Arrasatekoek, etxean berdintzea ez da eta nahikoa. Are eta gutxiago, lau norgehiagoka irabazi eta beste lau berdinduta 12 puntu erdietsi dituen taldearen kontra.

MONDRA ZARAUTZEN

Arrasateko taldea etxetik kanpo

epaileekin zorte handiagoa izateko asmoarekin joango da asteburuan Zarautzera. Joan den astean ikusitakoarekin, gaitza izango da aurrerantzean Gordobilen mutilak harritzea. Kontuak kontu, sailkapenean gertu baino gertuago dagoen Zarautz izango dute aurrean. Ustez, denboraldi hasieran talde hori zen goialdean egoteko hautagaietako bat. Gauza bera esan genezake Mondraren gainean, baina sailkapenak erakusten du taularen erdian daudela bi taldeak. Norgehiagoka galtzen duenak aurrera egiteko beste tren bat galduko du, beste bat.

Arrasateko sei atleta izango dira Euskadiko Txapelketan, Anoetan

XABIER URTZELAI

Joan den astean Gipuzkoako Txapelketatik hiru domina ekarrita, Arrasateko sei atleta Euskadiko Txapelketan izango dira bihar. Kadete, junior eta gazte mailakoak lehiatuko dira Anoetan.

Gipuzkoako Txapelketan 4,20 metroko jauzia eginda ahaleginduko da asteburuan Lander Errasti benetako maila erakusten. Marka hori ez da makala, baina Arrasatekoak entrenamenduetan erakutsi du hori gaintzeko gauza dela. Eta berarekin batera izango dira Iñaki Etxagibel, Jon Ander Amado, Imanol Esperesate, Oihane Urtzelai eta Gillen Mar.

Iñaki Etxagibel lehiatuko da 60 eta 200 metroko lasterketetan; Jon Ander Amadok 200 eta 400 metroetan erakutsi behar du



ARRASATEKO ATLETISMO TALDEA

Lander Errasti, hesia gaintzeko pertika erabat okertzen.

zer egiteko gauza den, eta beste horrenbeste egingo du Imanol Esperesatek, 60 metro-hesi lasterketan. Hala, ezin ahaztu kadete mailan esku hartuko duten Oihane Urtzelai eta Gillen Mar.

Joan den astean Gipuzkoako Txapelketan urrea erdietsi zuen Jonathan Perezek (4,80 metro), zilarra izan zen Manu Anguasendako (400 m), eta brontzearekin etorri zen Lander Errasti.

LABUR

Hogeita hamar lagun baino gehiago joango dira mendiko eskia egitera, Formigalera

Oraingo asteburutik hasita, eski estazioetara joateko bidaiak antolatzen hasiko da Besaide Mendi Elkarteak. Horrekin batera, baina, mendi elkarteak mendiko eskia egiten ikasteko irteera antolatu du oraingo astebururako. Hala, hastapen mailako ikastaroa egingo dute, Formigalera inguruetan. Bihar, apur bat eskiatzearekin batera mendian ibiltzeko jakin beharrekoak azalduko dituzte, eta baita segurtasun neurriak zelan hartu ere. Domekarako utziko dute mendiko zeharkaldia; Astuneraino joango dira.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

URTARRILAK 21, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Dribling - Pippol. **Betrayer**

11:00: Fuxxion - Betrayer. **Pippol**

12:00: Lasagabaster - Berdes Brem. **Fuxxion**

13:00: Iriztu Tab - Arrano Taberna. **Lasagab.**

16:00: Irish Pub - Billy & The... **AT Celaya**

17:00: AT Celaya - Saukelu Scre. **Irish Pub**

18:00: Aurrera Bolie - Abokajarro. **Saukelu**

URTARRILAK 22, DOMEKA. EPAILEAK

10:50: Iluntz - THC. **Txoponbeixek**

12:00: AC Surcos - Txoponbeixek. **Iluntz**

13:00: HLB 103 - Tomahawk. **AC Surcos**

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA

	P	J
1. Betrayer	18	6
2. Dribling	15	6
3. Iriztu Taberna	13	5
4. Saukelu Scream	12	6
5. Arrano Taberna	12	6
6. Billy & The Cowboys	12	6
7. Lasagabaster	10	6
8. Fuxxion	10	6
9. Abokajarro	10	6
10. Pippol	10	6
11. AT Celaya	9	6
12. Iluntz	7	5
13. Txoponbeixek	6	6
14. AurreraBolie TMT	6	6
15. Tomahawk	6	6
16. Irish Pub Dublin	6	6
17. AC Surcos	6	6
18. HLB 108	6	6
19. Berdes Bremen	0	6
20. THC	0	6

BETRAYER, INOIZ BAINO INDARTSUAGO

LIDERRAK ORAINDIK EZ DU NORGEHIAGOKARIK GALDU

Betrayer taldea dago sailkapeneko lehenengo postuan, jokatu dituen norgehiagoka guztiak irabazita. Bistan da lehenengo sei partiduek ez dutela txapelketa osoan izango duten ibilbidea erakusten, baina bada aurrerapen bat. Dagoeneko hiru puntuko aldea dute, eta sartutako eta jasotako gol kopuruek ere euren bolada ona erakusten dute. Orain arte gol gehien egin dituen taldea da (46), eta Lasagabaster taldeak bakarrik jaso ditu eurek baino gol gehiago (18). Zaldibarren ez dago sekreturik, matematika hutsa da. Defentsan ondo dabilenak eta erasoan golak barra-barra egiten dituenak ez du gehiago behar. Alde horretatik, aspaldi ez du erakutsi Betrayerrek joko maila hori. Aurrealdean ibili gura duen oilar bat gehiago; berri onak dira horiek.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Zarautz - Mondra

Preferentea. Zapatuan. 15:45. Zarautzen.

Mondra - Vasconia

Ohor gazt. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.

Arrasate - Lazkao

Big. Gazteak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

Arrasate - Anaitasuna

Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.

Arrasate - Bergara

Infantilak. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen.

Bergara - Mondra

Emakumeak. Domekan. 16:00. Bergaran.

XAKEA

Arrasate - Zarautz

Lehenengo Maila. Zapatuan. 16:30. Altamiran.

SASKIBALOIA

Sumina, - Mugarri Alkesa Arrasate

Igoera Fasea. Domekan. 19:15. Bilbon

Lasao Altz. - Mugarri Alkesa Arrasate

Junior. Zapatuan. 11:30. Azpeitian.

Goierri B - Mugarri Alkesa Arrasate

Kadeteak. Domekan. 12:15. Urretxun.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri Arrasate - Arrikruz Oñati.

Lehen Territ. Domekan. 11:00. Iturripen

Groseko Cocinas - Arrasate Eskubaloi

Big. Territ. Domekan. 12:30. Donostian.

Aitxuri Jat. - Gatz Museoa Jakion

Gazteak Mut. Zapatuan. 18:00. Legazpin.

Urnobitza Elg. - Gatz Museoa Jakion

Kadet. Mutilak. Zapatuan. 16:00. Elgoibarren.

Urola Premank. - Arrasate

Gazteak. Nesk. Domekan. 10:00. Zumarragan.



Deabruak hartutako Aita Santua, fraide exorzista, kardinalak eta beste nahastuko dira antzezlan horretan.

K. PRODUCCIONES

ANTZERKIA/ Etzi, domeka, 'Yo, Satan' komedia Amaia Udal Antzokian

Vatikanoa eta elizako agintariak, hankaz gora

KER BARANDIARAN

Etzi, domeka, *Yo, Satan* antzezlanarekin egingo dute Amaia Udal Antzokian. Andaluziako Antonio Alamo idazlearen eleberri baten oinarrituta dago, eta Alvaro Lavinek zuzendu du. Komedia horretan, Vatikanori eta elizako agintariari kritika egiten diete.

Beste ikuskizun mota batzuen parera, antzerkiak ia hilerio izaten du bere lekua Udaleko kultura programazioan. Oraingoan, aspaldiko partez, Espainiako talde bat eramango dute Amaia Udal Antzokira. Emilia Yague Producciones eta K Producciones enpresen Antonio Alamo idazlearen *Nata soy* eleberria antzokietara eramaten dihardute.

EXORZISTA, AITA SANTUA OSATZERA

Espainiako Gaspar Olivares fraide exorzista Vatikanora joan da, Aita Santua osatzeko asmoz. Elizako agintariak oso arduratuta daude, Aita Santuak zalantzan jartzen diharduelako elizak mendeetan sinetsarazi dituen gauzetako asko. Uste dute deabruak hartu duela elizaren agintari nagusia, eta horregatik Gaspar Olivares fraideari eskatu diote deabrua barrutik ateratzeko.

Historio horretan hainbat pertsonaia agertuko dira, exorzistaz eta Aita Santuaz gain: kardina-

lak, burokratak eta bestelakoak, hain zuzen ere.

Intriga, azpijoko eta ustelkeria kontu asko irtengo dira agerira, betiere umorez jantzita. Horren bitartez, gaur egungo Vatikanoren eta mila milioi arima kudeatzen dituen enpresa erraldoiaren gaineko ezagupen handiagoa izango dugu.

ELIZAKO AGINTARIEN 'ZALANTZARIK EZA'

Antzezlanaren oinarria den *Nata soy* eleberria Antonio Alamo idatzi zuen. Haren esanetan, Indiara egin zuen bidaiaren konturatu zen budistek zalantzarik garrantzi handia ematen diotela. Bat-batean zera pentsatu nuen: "Zer gertatuko litzateke kristauek hala jokatu balute? Hortaz, irudikatu nuen Aita Santu bat eliza katolikoaren kredoak zalantzan jarri eta ezeztatuko zituenak".

Idea hori hobeto garatzeko, Erromara jo zuen eta han igaro zituen lauzpabost hilabete eleberria idatzi zuen arte.

Grijalbo Mondadori argitaletxeak kaleratu zuen liburua Espainiako Estatuan eta baita Mexikon ere. Gaur egun, hainbat hizkuntzataraz itzulita dago, besteak beste, errusierara.

2004an, Antonio Alamo eleberri hori antzokietara eramatea erabaki zuen, eta Alvaro Lavinek hartu zuen zuzendari zeregina. Azkenean, 2005eko urrian estreinatu zuten.

AKTORE OSO EZAGUNAK

Oso aktore ezagunak esku hartuko dute antzezlanarekin: Alfonso Lara, Juan Fernandez, Pako Sagarzazu, Ales Furundarena, Idelfonso Tamayo, Ramon Ibarra eta Adolfo Fernandezek, hain zuzen ere. Ales Furundarenak, esaterako, Tele 5 telebista kateko *Los Serrano* saio ezagunean esku hartu izan du; Alfonso Larak Antena 3 telebistako *Un paso adelante* saioan; eta Pako Sagarzazuk antzezlan ugarritan, telebistan eta hainbat filmetan. Eskarmentu handiko aktoreak, zalantza barik.

Aita Santuak zalantzan jarriko ditu kredoak eta Vatikanoa kolokan egongo da

Telesail ezagunetan eta antzokietan lan handia egindako aktoreak daude ikuskizunean

Zapatuan, Zein? eta Desoreka taldeen kontzertua gaztetxean

I.B.

Biharko, zapatua, kontzertu interesgarria antolatu dute gaztetxean. Lezoko Desoreka eta Sopuertako Zein? taldeak izango dira taula gainean. Izen txikiarekin, emanaldi borobilak ematen dituzte.

Aurreko astean iragarri genizuen gaztetxeko batzarra hasi dela berriro buru-belarri kontzertuak eta bestelako ekitaldiak antolatzen. Ba oraingo asteburuan, zapatuan hain justu, kontzertu interesgarria egingo dute.

Sopuertako Ama Say taldeak ibilbide oparoa egin zuen 90eko hamarkadan, eta hiru disko kaleratu zituzten Esan Ozenki diskoetxearekin. Taldea desegin zutenean hasi zen jendea talde hori errebendikatzen. Ama Sayko taldekideak urteetan geldirik egon ostean, Zein? taldea abiaraztea erabaki zuten. Ez daude aurreko taldeko lagun guztiak, baina soinu-

antzekotasunak dituzte, eta baita jarreraren ere. Popa eta rocka nahasten dituzte, une lasaiak eta basatiak tartekatuz. Oso estilo berezia daukate. Metak diskoetxearekin bi lan kaleratu dituzte: *Seiehun eta bi* eta *Photograma*, biak hala biak bikainak.

Taula gainean arituko diren beste lagunak Desoreka taldekideak dira. Lezotik datoz eta musika estilo koktelera oso bitxia egiten dute: metala, rock gogorra eta funkya nahasten dute, besteak beste. Orain dela gutxi, bigarren diskoa kaleratu dute Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin.

Aurreiritzik gabeko pop eta rock basatia, batetik; eta metala eta funkya, bestetik da eskainiko dutena



METAK

Zein? taldeko musikari gehienek urte asko daramatzate musika egiten.

LABUR

Eguenean, umeen beldurrak ipuinen bidez uxatzeko berbaldia egingo dute Monterronen

Eguenean, hilaren 26an, Donostiako Juan Carlos Alonso psikologoak *Beldurra ipuinetan* berbaldia egingo du Monterrongo liburutegian. 18:30ean egingo dute, eta batez ere gurasoei eta umeen hezitzaileei zuzenduta dago. Udal Liburutegiak antolatu du.

Iaz eraman behar zuten Juan Carlos Alonso Monterronera berbaldia ematera, egokitu zuten Beldurraren aretoa, baina elurra egin zuen eta psikologoa ezin izan zen Arrasatera heldu.

Alonsok umeen beldurrak uxatzeko ipuinek duten garrantzia nabarmenduko du, eta liburu berrien zerrenda bat emango die gerturatutakoiei. Horrez gain, entzuleen kezka argituko ditu.

Martxoaren 8rako horma-irudi lehiaketa abiarazi du Emakume Txokoak

Emakumearen nazioarteko eguna iragartzeko bederatzigarren horma-irudi lehiaketa antolatu du Emakume Txokoak. Aurtengo leloa honako hau da: *Zainduak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa*. Lehiaketan edozein lagunek esku hartu ahal izango du, eta teknika librean izango da. Horma-irudien neurriak gehienez 50x70 zentimetrotakoak izango dira.

Lanak otsailaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, eta Udaletxera bidali beharko dira Emakume Txokoaren izenean. Irabazleak 900 euroko saria jasoko du (sariak %20ko PFEZren atxikipena izango du).

Antolatzaileek egoki ikusten badute, aurkeztutako horma-irudi guztiak erakusketa egingo dute.

BOTE PRONTUEN

Andoni Erdabide

TOYOTA EUSKOAUTO

XABIER URTZELAI

Juen dan urtien be izen gitzen Andonik, orduen Hondan ebillen-eta lanien. Oin Bergaran dau, Toyotak Opel kontzesionari-xuekin batera egin dauen edifizio barrixen. Giauton barruen dauz horreik bi markok, beste marka batzuekin batera.

Martxa horretan Asiako kotxien gaineko tesixe egin biher dozu.

Bueno... Bi urte egin dot Hondan, eta hiru hillebete daroiet Toyota etxiendako lanien. Neure tesixen, banaketie egingo neuke kotxe japonesen, koreanuen eta txinuen artien. Japonesak kalidade haundikuek die, Koreakuek bentaja haundixe egin daue, baiñe ondokan aldie dau, eta ikusteko dau Txinatik ze etorriko dan, baiñe horrei ez dutzet bilddurrik.

Zergaittik?

Jentiek komentetan dau Txinak 3.000 eurogaittik salduko dien kotxiek egin biher dauela. Guk ikusi dounez, Opel Frontera modeluen kopixie egin daue, baiñe kalidadien sekulako aldie dau. Hasteko, kotxiei egitten jakuen Eurocap izeneko proban nota txarrenà atara dau. Alde horretatik, kalidatie lortzeko dirue inbertidu biher da, eta hori ezin da 3:000 eurotan saldu.

Ez dutzut eskatuko Hondan eta Toyotan arteko konparaziñue egittie.

Ez dauket problemarik, bi markak die-eta kalidade haundikuek. Alde horretatik, Honda izen leike kotxe berezi samarra topetan dabilenandako, eksklusibuau-e-odo. Toyotan, barriz, modelo mordue daukou, gama haundixe. Esaten daue urte bukaerarako Toyota izengo dala munduko kotxe fabrikante haundixena, General Motors-en aurretik.

Gasollezko motorretan egitten dozue publizidade haundixe.

Izen be, geruau eta motor hobiiek egitten daue. Toyotako anuntziuen ikusi izen dou tubo-eskapien zapi zurixe jarte dauela eta ez dala zikin-keetan. Hori probioi be egin dou hamen, eta ez dau tranparik. Kon-



“Asiako kotxien artien, banatu egingo neuke modelo japonesak, koreanuek eta txinuek”

sumo bajuek eta kontaminaziño txikiñe, hori da Toyotan asmuetakoa bat. Horrekin batera, badakixie gasoliñie ez dala betirako egongo, eta hasi die motor hibriduekin lanien, oso emaitza onakin.

Elegidu bi modelo.

Toyota Land Cruiser modelue da todoterrenuen artien Españan jaun eta jabe. Jentiek asko aprezietan dau hori modeluoi. Eta buru apur bat eukiko bageu, Yaris modelue erosiko geuke. Txikiñek baiñe leku haundixekin, oso konsumo bajue...

Ikustekue da aurten zenbat todoterreno saldu dan.

Moda kontuak die horreik. Lehen, dirue eukenak berlina haun-

“Urte bukaerarako Toyota izengo da munduko kotxe fabrikante haundixena”

di eta potentie elegiduten euen. Oin, dirue daukonak todoterrenuek erosten dau, nahiz eta mendire sekula be ez juen. Horrek erakusten dau, gaur egun, pertsonien estatus ekonomikue.

Aurreko baten zeure kapritxue ez geuen biher dan moduen ipiñi, eta bada hori zuzenketa-koko momentue.

Neu baiño gehixau haserretu zan neskue (barre). Mini modelo zaharra dauket, neu jaixo nitzen urtekue (1972). Ez da Mini Cooper modelue, baiñe poliki-poliki jarten juen nazen gauzekin, itxura haundixe hartu dau. Ez dau kotxe hori baiño euskaldunaurik, Naparruen egitten zan-eta.

NIRE BIDAIA HURA / Urtzi Axpe

Laos / 2005eko uztailaren 24tik abuztuaren 24ra

Urtzik bizikletarekin bidaiatzea atsegin dutenendako luxuzko bidaia egin zuen abuztuan, Arrasateko eta Aretxabaletako beste lau lagunekin batera: “Iban Okina, Oier Sarasua, Agurtzane Azkargorta, Aitor Gartzia eta bostok animatu ginen Laosen bizikletan ibiltzera”. Ez pentsa, baina, bidaiaren aurretik denek elkar ezagutzen zutenik. Alde horretatik zortea izan dute: “Egia da gure artean izan dugula eztabaidaren bat edo beste, baina ederto moldatu gara. Azken batean, erosotasunik ez, nekea, beroa, eltxoei eta malarari beldurra... Kontuan izan, besteak beste, lehenengo egunetik goitik behera aldatu zirela gure aurreikuspen guztiak”.

Hala, ibilbidea inprobisatuta ere, etapa ezin ederragoak egin zituzten bost lagun horiek. Bistan da bat-batean hartzen diren erabaki askorekin ezin dela asmatu, baina hori da horrelako bidaiak duten xarma: “Abuztuaren 25ean iritsi ginen Bangkokera. Eta, Vientiam-era bidaia hartu gura genuenean esan ziguten probintzia horretan ezin ginela sartu, Asiako gobernu-buruen batzarra zegoelako hantxe. Orduan, Luang Prabang-eraino joan ginen, eta bidaia handik hasi. Herri koloniala da Luang Prabang, tenpluz betetakoa. Bi egun eman genituen bizikletak egokitu, atseden hartu eta bidaiaren nondik norakoa prestatzen. Uztailaren 29an hasi genuen bidaia, Luang Namtharako bidea. 10:30ean hasi ginen bizikletan eta orduan egin genuen lehenengo hanka-sartzea. Eltxoak ez erakartzeko eguzkitako krema barik gertiltzan, eta konturatu ginerako erre egin ginen. 75 kilometro egin genituen egun hartan, eta lo egiteko txoko bat bilatzeko uste baino arazo gehiago izan genituen; eskerrak amonaxto batek lekua egin zigun. Alde horretatik, ikustekoa izan da hango herri-tarrek izan dugun tratua; jende ezin jatorragoarekin egin dugu topo”. Datozen asteotan boskote hori izango da protagonista, euren abenturarekin batera.



“Laoseko iparralde menditsua da; hori izan zen gure aukera”

XABIER URTZELAI



Bizikleta gainean egin zituzten lehenengo kilometroak.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



HORRELA ERAKARGARRIAGO DA ARTEA IKASTEA, ALA?

Arrasateko Institutuan dabilen Arte Batxilergoko koadrila hori Bilbon izan berri da, Guggenheim museoa bisitatzen. Hala, artea ikasteko modu erakargarriena aukeratu dute, artelanak zuzen-zuzenean ikustea, hain zuzen. Kontua da irakasleek museoak ikustera joateko ohitura piztea gura dutela ikasleengan, badirudi-eta museoan aurrean gazteek beldurra edo interes txikia izaten dutela. Lehenengo helburu hori lortuta errazagoa izango da artelanak ezagutu, aztertu eta egileen berri izatea. Hala, Guggenheimer a egindako bisitaldian arte garaikidearen hainbat artelan ikusi zituzten, eta baita Richard Serra eskultore estatubatuarren obrak ere. Gainera, arreta berezia eskaini zioten artista horri, ikasturtean zehar bere lanak aztertu dituzte-eta. Irakasleak benetako ahaleaginean badabilta, seguru Serraren jaioterrian ere lan mordoa izango dituztela erakusgai (San Frantziskon jaio zen, 1939an). Botatzearen...



ANDRESA EGIDAZUK 102 URTE EGINGO DITU HILAREN 26AN

Andrea Egidazu Erreterian bizi da gaur egun, baina astero-astero etortzen da Udalara, Dolara baserrira, etxeokengana. Patxi Egidazu zuen anaia, eta hark joan den urtean esan zigan agur, 103 urterekin. Bistan da Egidazutarak badutela zerbait. Kontua da Andresaren bilobek zorionak eman nahi dizkiotela, eta 102 musu leun eta goxo. Horrela bai...

ERREGEEK GUTUN ELEKTRONIKOA BIDALI DIGUTE, ARRASATEARREI ESKERRAK EMANEZ

Aurreko urtarrilaren 5ean harrera beroa izan genuela-eta, pozik itzuli ginen Meltxor, Gaspar eta neu, Baltasar, gure Ekialdeko bizilekuetara. Laguntzaile finak izan genituen ibilbide osoan eta pozez jaso genituen Arrasateko neska-mutikoen eta helduen irriak. Gogotsu meska nahi ditugu gure etorreran, bidean edota beste edozertan lagundu gaituzten guztiak. Esker mila eta datorren urtera arte, zuen zain egongo gara! ". Eta gutunarekin batera, Debagoieneko

ospitalean egin zuten bisitaldian ateratako erretratua bidali digute. Azken batean, egun horretan kalean zebiltzanek osasuntsu igaro dituzte Gabonak, baina arrazoi batengatik edo bestearengatik urtarrilaren 5a ospitalean igaro zutenendako Erregeen bisita haize freskoa izan zen. Erregeek ere ondo dakite egun horretan nortzuek duten euren behar handiena. Hala, opari guztiak banatu eta etxera itzuli dira, datorren urtera arte atsedean hartzera.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak



Ibarreko erretiratuek gero eta gehiago gozaten dute bainuetxeetan.

ARRASATE PRESS

AISIALDIA ETA OSASUNA Bainuetxetara joateko eskaintza

Bainuetxe kanpaina berria abiarazi du Imersok

IKER BARANDIARAN

Imerso erakundeak Espainia-ko Estatu erretiratuei bainuetxetara merke joateko aukerak eskaini dizkie. Lehenengo txandan joateko (otsailetik abuztura bitartean) izenematea urtarrilaren 31n bukatuko da. Inprimakiak Udaletxean daude eskuragarri.

Aukera polita da urtero Imersok erretiratuei eskaintzen diena. Hortaz, Espainiako Estatuan dauden hainbat bainuetxetara joateko zerrenda zabalik dago termalismo kanpainaren bitartez.

Programan esku hartzeko, interesatuek honako baldintzak bete beharko dituzte: Segurtasun Sozialean pentsionista izatea,

erretiratua egoteagatik edo elbarria izateagatik (alargunen kasuan, ezinbestekoa izango da 60 urtetik gora izatea); buruko gaixotasunik ezta gaixotasun kutsakorrik ez izatea; bere kasa moldatzea; eta medikuaren kontraindikaziorik ez edukitzea, besteak beste.

Kanpainak honako zerbitzuak eskaintzen ditu: ostatua mantenu osoan, bainuetxe tratamen-

duak, errekonozimendu medikoa eta aseguruak, besteak beste.

Egonaldiak 12 egunetakoak izango dira, eta bi txanda antolatuta dituzte: bata, otsailetik abuztura artekoa; eta bestea, irailetik abuztura artekoa. Lehenengo txandakoek urtarrilaren 31 baino lehen eman beharko dute izena; eta bigarrenekoek, maiatzaren 16a baino lehenago. Inprimakiak udaletxean daude.

Otsailetik abuztura bitartean joateko, izena eman beharko dute urtarrilaren 31 baino lehen

Kanpainan esku hartzeko inprimakiak udaletxean har daitezke

LABUR

Etxaluze baserria zegoen tokian, Abaroa egiteko proiektua aurrekontuetan sartuta

Joan den urtearen bukaeran jakinarazi genizuen Udalak San Andresko Etxaluze baserria bota eta han San Andresko auzo alkatetzarako zerbitzuak eta Abaroa erretiratuen elkarteak jarri gura zituela.

2006rako onartu berri dituzten udal aurrekontuetan diru partida bat aurreikusitako dute erabilera ugari izango dituen eraikin horren proiektua idatzeko, baina oraindik ez dago zehaztuta 2006an lanak hasiko dituztenik.

Aspaldian tirabira asko izan dira Abaroako erretiratuen eta Udalaren artean etorkizuneko kokapenaren gainean, eta badirudi aukera horrek bi aldeak asebeteko dituela. Bestalde, egia da proiektu horren bitartez San Andresko erretiratuek ere halako zerbitzuak jasotzeko aukera izango dutela.

Iturbide egoitza handitzeko egin beharreko lanen proiektua idatzita dago dagoeneko

Udaleko Hirigintza Sailak aditzera eman duenez, Javier Egaña arkitektoak idatzi berri du Iturbide egoitza handitzeko proiektua. Orain ikusi beharko da aldaketarik egin behar izango dioten edo ez. Hala ere, asmoa da lanak 2006an hastea.

Helburua da Iturbide egoitza handitzea eta gaur egungo egoiliarrek dituzten beharretara egokitzea. Horrek esan gura du gaur egun Abaroa elkarteak daukan solairua hartzeaz gain, gainontzeko solairu guztiaren aldaketak egin beharko dituztela.

Aurreikusitakoaren arabera, lanek bi urte iraun ditzakete. Dena dela, lanak faseka egingo lituzkete, han bizi direnei eroso egoteko aukera emateko. Horrez gain, Ongizate Sailak aditzera eman du lanek eragina izan dezaketela Iturbidera sartzeko itxaron zerrendan.

80 urtetik gorako auzotarrei omenaldia eta eskulanen erakusketa Uribarriko elkarte

Urte aldaketarekin batera, herriko erretiratuak gogor dabilta hainbat ekimen antolatzen. Uribarriko elkarteak, esaterako, hainbat ekimen abiaraziko dituzte datozen egunetan.

Egunotan ikusgai dago elkarte erretiratuek egiten dituzten eskulanen erakusketa. Hilaren 24ra arte egongo da zabalik 18:30etik 20:00etara bitartean.

Bestalde, eguenean, hilaren 26an, 80 urtetik gorako auzotarrei omenaldia egingo diete. Bazkaria egingo dute, eta horren ostean, sorpresak izango dituzte.

Horrez gain, elkarte arduradunek jakinarazi digute otsailaren 7an hasiko dutela urtero egin ohi duten oroimen tailerra. Interesatuak elkarte bulegoan hartuko dituzte.

San Isidro jaietarako inauguratu gura du Musakolako erretiratuen elkarte Udalak

Musakolako erretiratuen elkarte berriko lanak aurrera doaz. Udalak hitzarmen bat egin zuen Gotzaindegiarekin, eta San Isidro elizako atzealdean Musakolako erretiratuendako elkarte egitea erabaki zuten.

Estalkia egiterakoan izan zituzen arazo batzuk direla medio, lanek hainbat atzerapen izan dituzte eta proiektuan aldaketak egin dituzte. Hala ere, Udalak uste du martxoaren bukaerarako lanak bukatu ahal izango dituztela. Horren ostean, ekipamendua jarri beharko dute, eta lekualdaketa egin beharko dute. Hortaz, Udalaren asmoa da berandu jota San Isidro jaietarako elkarte inauguratzea.

Auzoko erretiratuak badakigu lokal berrira joateko gogoz daukela, batez ere oraingoan leku nahikorik ez dutelako.

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFOIKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abestia) I KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Real | REAL

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Karkadako benta) | AMORE
Begiak okertuta (Lin Ton Ton) | BEGIAK
Bi Minutero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermín Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKARRA
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (JSP) | ENAMO
Etorkizuna (Etsaiak) | ETORKI

Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Nego Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itzi) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inpermuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urza) | KAIXO
Lau Teilatuta (Itzi) | ITZOILAU
Laztana (Lazten) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokain) | LOTUTA
Loretxoa (Etsaiak) | LORE
Marea Gora (Itzi) | MAREA
Musturrek sartundea (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Itzi) | NOTIME

Salve (La Polla) | SALVE
Sari Sarri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Etsaiak) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO
Txusu (La Polla) | TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maika ta Iñaki) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Itzi) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epele eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Aitz / Maider) | MILA
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Aitz / Maider) | TXANPON

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Beke) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxo) | BAI
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Epertrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herria Euskaraz (Osakorn) | EUSKAL
Euskaldun bemaeren balada (Osakorn) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ondoñka) | POSIBLE
Furra Furra (Osakorn) | FURRA
Galziera noa (Osakorn) | GALZIERA
Gemikako Arbolak (Gonzal Mendib) | GERNIKAI
Haika Mutil (Mikal Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxo/Peto) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Beke) | MARINE
Nore herriko neska baxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikal Urdangarín) | NON

Oi Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Osakorn) | TIRAI
Txabamatzalabau (Mikal Urdangarín) | TXATXA
Txoria txori (Mikal Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ondoñka) | ZAINDU

Herrikoia
Bagare! BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Manjaja (Kepa Junkera) | JAJA
San Fermín | FERMIN
San Martzialetak alardea | SAN MARTZIAL



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK (2 sms)
Soinu izena | KODEA
1,2,3,4...Real!!! | REAL
Athletic leup!!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu... Aitareta ta semea... | AITAREN
Hartu... ANSAR | ANSAR
Hartu... Argentinarra | ARGEN
Hartu... Mexikarra | MEXIKO
Hartu... Miami!!! | MIAMIOL
Independenzial | INDEPEND
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Txalaparta | TXALA
Txootxo | TXOTX

LOGOAK (sms1)

LAU1

LAU3

NUKLEAR

LORA

SORGIN

ARRANO

OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeke, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde oraindik dagoen da eta Ki jaisiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan daia eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora / * Vodafone: deitu 123-ra / * Movistar: deitu 608-ra.

3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgurea honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskuratu dezaketen bazu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Atzeko kale 6 behea 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otolora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Erdiko kale, 50 behea..... 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5..... 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk..... 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzezino,6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika,Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika,Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10..... 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Erresonantzia magnetikoa...) Nafarroa etorbidea, 3 .. 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10..... 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

EZETZASMATU



ARRASATEKO UDALA

Zela deitzen zen Arrasaten zabaldu zuten lehenengo Eroski?
Arrastoa: 1960ko ekainaren 23an inauguratu zuten.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Scottex komuneko papera
4 erroiluko paketea

1€ 167 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

CHARO TROJAOLA arendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Charo!
Galderen erantzun zuzena:
Etxebizitzak.

ERRETRATUZAHARRA

1934ko iraultzaren gaineakoa

Iraultza izango dugu berbagai oraingo honetan. 1934ko iraultza edo altxamendua, hain justu ere. Aukeratu dugun argazkian, altxamendu hartan parte hartu zuteneko batzuk azaltzen dira. Arrasateko Iraultza batzordeko kideak dira guztiak. Hala kontatzen du Jesus Larrañagak *Interioridades de una Utopía* liburuan.

Toursen (Frantzia) dago aterata argazkia, hantxe bizi behar izan zuten eta argazkikoek, erbesteratuta. Honako hauek azaltzen dira, zutik: Pedro Ruiz Alegria *Porra*, Saturnino Abarrategi *Satur*, Jose Agirregomez-korta *Lapiko*, Zelestino Uriarte eta Tomas Uribarren. Eta eserita: Azkona-ga *Txoroka*, Pedro Gallastegi *Londres*, Jaime Uriarte *Elgeta*, Gillermo Lasagabaster *Mala leche* eta Markos Vitoria *Sanvaleixo*.

Oro har, 34ko Iraultzarekin, boteretsuak aldatu baino gehiago egin gura zuten iraultzaileek. Arrasaten, Zelestino Uriarte izan zuten gidari nagusi. Besteak beste, Union Cerraje-



raren eta hango burgesiaren kontra egin zuten gogor. Hala, UCEMen ekonomatua hartu zuten 34ko urrian. Han hartutako janari guztiak Trinke-tera (Okendo jauregira) eramán zituzten. Handik aurrera, herria kontrolpean izateko lanak egin eta Marcelino Orejaren (UCEMeko Administrazio Kontseiluko presidentea) bila

joan ziren, Toribio Agirreren etxera. Hark erresistentzia egin barik amore eman zuen eta Trinketeko lehen solairuko areto batean utzi zuten, atxilotuta. Gero, Inazio Txakon injine-ruaren bila joan ziren; gorroto handia zioten hari, baina hark ihes egitea lortu zuen. UCEMeko administrari-buru Rikardo Azkoaga, berriz, atxilotu eta

Orejarekin batera gorde zuten. Baita Dagoberto Resusta ere (probintziako diputatu eta UCEMeko aholkularia). Oreja eta Resusta hil egin zituzten.

Argazkia eta informazioa: *Interiores de una Utopía* liburua, Jesus Larrañaga eta Arrasate 1936 *belau-naldi etena* liburua, Oktubre taldea
Urtea: 1934.

Eguaztenetan 22:15ean, ZINEMA

16 MM: Euskal zinegileek eginiko film laburren saioa



URTARRILAK 25

• TXOTX (15')

Asier Altuna eta Telmo Esnal

Sinopsia: Euskal Herri sakoneko sagardotegi batean, zurrut-giroan bildutako lagun taldea ingurune bizigarri hartako ilun aldea ezagutzera doa; aldi berean, sagardo upel eta jangai goxo-goxoen artean, sagardotegiaren familia-jabeak usadioari eta negozioaren iraupenari buruzko eztabaida mahaigaineratzen duelarik.

• TOPEKA (3'30)

Asier Altuna

Sinopsia: Herri txiki bateko gizonak zirkulo bat osatzen dute. Zirkuloaren erdian, bi ahari burrukan ari dira...

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU



Edertasun gida



AU SART
Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo
Iturriz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA
ILEA
UNISE
Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore
Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 20a

408. zenbakia

-KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Zuhaitz eta zuhaixkak kentzeko lanak aurrera doaz Urkulun

MIRARI ALTUBE

Joan zen asteen hasi ziren Urkulu urtegiko zuhaixka asko eta hainbat zuhaitz kentzen. Kanpotik ekarritakoak dira kenduko dituzten guztiak, eta horien ordez bertakoak landatuko dituzte. Naturgintzak egindako proiektuari jarraiki dabilta egiten lanak.

Urkuluko diketik eskumako alde-
ra dagoen tartean dabil Oiar-
tzungo Berdabio basogintza
enpresa zuhaixkak kentzen. Aste
honetan bertan kenduko dute
ibilbidearen bueltan zegoen hes-
kai guztia.

BERTAKO ZUHAIXKAK LANDATU

Udalak aginduta egin zuen proiektua Naturgintza fundazioak Urkulu biziberritzeko. Ur ingurua txukuntzarekin hasi dira, eta horretarako bere garaian kanpotik ekarritako zuhaitz eta zuhaixkak kentzea gomendatu zuten Naturgintzako kideek. Kiko Alvarez proiektuaren arduradunaren esanetan politikak izan arren landareok hegazti eta animalientzako ez dute batere baliorik. Hala, ailanthusa, platanok eta konifera batzuk kendu dituzte; baita pyracanta izena duen zuhaixka ere. Horien ordez, elorri zuria, elorri beltza, basa-erramua, zuma-lakarra eta beste horrenbeste

zuhaixka landatuko dituzte. Baita lizarrak, haltzak eta urkiak ere. Ibilbidearen bueltan landatuko duten zuhaixkak haizearengandik babestuko ditu urtegiko hegaztiak baina horrez gain, elikagaiak izango dira.

Aipatutako lan guztiok 259 mila euroko aurrekontua daukate, eta ia 4.000 landare landatuko dituzte. Zuhaitz eta zuhaixkak kentzeko lanak hamabost egunen buruan bukatu arren landaketek luzeago joko dute. Horregatik martxo ingururako bukatuko dituzte lan guztiak. Landaketa egiteko garai egokia daukate orain, udaberriari gero hazteko.

HEGAZTI KOPURUA BEHERAKA

Ur bazterrak txukuntzen dituztenean hegaztiak bizi diren ingurunearekin hasiko dira. Urtegi erdian dagoen irlan babes funtzioa izango duen horma jarriko dute. Neurri horiekin guztiekin hegaztien kopuruak gora egiten duen aztertuko dute. Izan ere, azken urteotan beheraka doa Urkulura datozen hegazti kopurua: lehen 1.000tik gora etortzen baziren negua pasatzera, iaz 300 inguru bakarrik izan ziren.

Urkuluk atsedena dirako ematen dituen aukerak bultzatuko dituzte: paseoan egin, bizikletan ibili edo patinekin ibili, baina hegaztiendako gunea babes-tuaz. Horregatik, txoriak ikusteko hiru behatoki jarriko dituzte txukuntze lanok bukatutakoan. Informazioa emango duten hiru panel ere laster ikusiko ditugu: Urkuluko ezaugarrien, hegaztien eta heze guneen berri emanaz.



Danbor hotsak ikastetxe guztietan

Gabonak pasatu ahala hasi ziren danborrak astintzen ikastetxeetako umeak. Aste honetan, gainera, gogor jardun dute hitzordu garrantzitsua dutelako gaur, San Sebastian eguna, guraso, aiton-amona eta lagunen aurrean. Sarriegiren doinuak ondo baino hobeto ikasi dituztela erakutsiko dute Kurtzebarri eskolako zein Basabeazpiko umeek. Pausoka haur eskolakoek ere, txikiagoak izan arren, egin dute goizean danborrada, eta a ze gustura jardun duten burrundara ateratzen. / M.A.



Hamabost egun barru zuhaixkak kentzeko lanak bukatu eta landatzen hasiko dira.

LABUR

Sendabelarren gaineko berbaldia egingo du Zorion Intxaustik datorren egunean


Datorren urtarrilaren 26rako, eguna, sendabelarren gaineko berbaldia antolatu du Loramendi Euskara Elkartek. Zorion Intxausti aditua etorriko da udaletxe zaharrera, 19:00etan.

Bestalde, egubakoitzean, urtarrilak 27, Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo dute udaletxe zaharrean, 19:00etan. 217 lan jaso zituzten abenduan Loramendin, eta orain lanik onenei sariak emango dizkiete.



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 21
FRAILE: Herriko Plaza, 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 22
FRAILE: Herriko Plaza, 10. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

- Almen..... 943 71 49 07
- ARETXAGAZETA..... 943 79 86 21
- Faxa..... 943 77 18 54
- Basoko..... 943 77 09 81
- Euskaltegia..... 943 79 21 68
- Gizarte laguntzailea..... 943 71 18 62
- Industriaidea..... 943 79 62 80
- Instituta..... 943 79 79 00
- Kirol etxea..... 943 71 26 28
- Kultura etxea..... 943 71 10 27
- Gazteria saila..... 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola..... 943 79 00 49
- Kurtzebarri BHI..... 943 79 57 40
- KZGunea..... 934 79 94 44
- Liburutegia..... 943 71 18 62
- Loramendi EE..... 943 77 09 70
- Ludoteka..... 943 79 05 81
- Mankomunitatea..... 943 79 30 90
- Murrutiko ME..... 943 79 93 74
- Musika Eskola..... 943 79 36 50
- Osasun etxea..... 943 71 19 59
- Otalora..... 943 71 24 06
- Parrokia (bulegoa)..... 943 79 18 42
- Pausoka Haur Eskola..... 943 77 03 77
- Postetxea..... 943 79 28 31
- Basabeazpi Ikastola..... 943 71 21 18
- Taxi gettokia..... 943 77 12 64
- Udal Bulegoak..... 943 71 18 62
- Udaltzaingoa..... 943 71 18 63
- Urats Gain..... 943 79 99 11

UDALTAINGOIA

Airasate..... 943 79 14 39

LARRIALDIK

- SOS Deiak..... 112
- Eskualde Ospitalea..... 943 03 53 00
- Ertzaintza..... 943 79 71 99
- Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
- Larrialdiak..... 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati)..... 943 78 28 00

Seigarren Kanuto deuna ospatuko dute bihar

M.A.

Urteroko jaia egingo dute Kanuto deunaren jarraitzaileek bihar. Seigarrena da dagoeneko, eta musika eta bazkaria izango dituzte. Bolo txapelketarekin hasi eguerdian eta Ezkutu tabernan egingo duten jaiarekin bukatuko dute eguna Kanutoren jarraitzaileek.

Marihuanaren zaindari izendatu zuten Kanuto 2000. urtean eta geroztik urtero ospatu izan dute herriko hainbat gaztek eguna.

HERRI BAZKARIA FRONTOIAN

Goizeko hotza alde batera utzi eta giroa berotzen hasteko bolo txapelketa egingo dute 12:00etan; ardo eskainiko diete hurbiltzen

direnei, barrua berotzeko. Txikiteo ostean, herri bazkaria egingo dute Iturrigorri frontoian. Orkestra-gizonak girotuko die bazkalostea, eta harekin batera ezustekoren bat ere izango da. Makulele eta Capoeira erakustaldiak egongo dira arratsalde partean. Senzala taldearen eskutik.

OMENALDIA ZAINDARIARI

Ezin bukatu, baina, eguna zaindariarekin gogoratu barik. Hala, lehenengo kalejira egingo dute Kanuto deuna aldean hartuta gaitarien laguntzarekin eta gero Txiki Barren salda beroa hartu ostean, omenaldia egingo diote.

Eguna bukatzeko jaia antolatu dute Ezkutu tabernan. 23:00etan Gaiteru's Banden kontzertua egongo da, eta ondoren DJ jaia, indar barik geratu artean.



Gaitarien laguntzarekin egingo dute kalejira kalean Kanuto deunarekin.



Olioia jasotzera hamabostean behin

Etxean erabilitako olioak batzera hilean behin etorri izan da puntu berde mugikorrek automobila, baina urte berriarekin batera hamabostean behin hasi da etortzen. Lehen bezalaxe azoka egiten den gunean, Belorrieta auzoan, egongo da 09:00etatik 13:00ak bitartean. Astelehen honetan bertan egon denez hurrengo hitzordua urtarrilaren 30ean dauka. Bide batez gogoratu, traste zaharrak jasotzera eguenetan pasatzen direla 20:00etatik 22:00etara, baina aurrez deitu egin behar da. / M.A.

LABUR

Bihar, zapatua, ospatuko dute San Bizente eguna areantzarrek meza eta afariarekin

Urtarrilaren 22an izan arren San Bizente eguna, Areantzako auzotarrek bihar ospatuko dute. Txistularien doinuak eta etxafuegoak izango dituzte eguna girotzeko. Goizean auzo lanerako elkartuko dira eta 17:00etan meza izango dute San Bizente ermitan. Garaikotik bueltatzea emandakoan Matikun elkartuko dira afaltzeko.

Araitz Lizarriturri Etxenausia, Loramendiko bazkide gazteena



Loramendi Kultur Elkarteko bazkiderik gazteena da Araitz, 408. bazkidea. Loramendiko lagunen partetik, zorionak Olaia eta Asier gurasoei. "Harrobia" hazten doala ikusteak sekulako poza eman die Loramendiko kideei.

Hirigintzako erdi mailako teknikaria behar du Udalak hutsik geratuko den postua betetzeko

Aitziber Mendigain hirigintzako teknikariak utziko duen lanpostua bete gura du Udalak. Hala, urtarrilaren 17ko GAOn argitaratu zituen lanpostua betetzeko oinarriak. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean 20 egun izango dituzte interesatuek izena emateko.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAKO
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 ¥ ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 88 95



Partidu guztiak galduta hasi dute Udaberriko Pilota Txapelketa

M.A.

Joan zen astean hasi zuten Udaberriko Pilota Txapelketa. Herriko bost bikote dabilta jokatzeko: hiru senior mailakoak eta beste biak kadeteen artekoak. Gaur, egubakoitza, hiru partidu jokatu dituzte Iturrigorri frontoian, 19:00etan hasita.

Joan zen astean hasi eta apirila bitartean jokatu dute eskuz binakako Udaberriko Pilota Txapelketa. Aretxabaletako pilotariak ez dute batere ondo hasi txapelketa.

LAU PARTIDUAK GALDU

Senior zein kadete guztiak galdu egin zituzten partiduak. Etxean partidu bakarra jokatu zuten, Uriarte eta Oion seniorrek. 10-22 galdu zuten usurbildarren aurka. Hain zuzen, senior mailako beste bi bikoteek ere usurbildarren aurka jokatu zuten, baina kanpoan. Lasagabaster eta Altzolak 22-12 galdu zuten eta Errasti eta Kortabarriak, 22-10. Unai Errastik ezin izan zuen joan, eta horregatik Kortabarriak jardun zuen haren ordez.

Kadeteek partidu bakarra jokatu zuten; Gardoki eta Akizuk 22-16 galdu zuten Donostian Antiguoko bikotearen aurka. Perez de Labeagak eta Uribarrenek, ostera, atsedendia izan zuten.

MARTUTENERA JOKATZERA

Txapelketa luzea da, baina partiduak irabazten hasi behar dute



ARTXIBOA

Ea herritarrek emandako berotasunarekin partiduak irabazten hasten diren.

atzean geratu ezean. Aste honetan bost bikotetik hiruk etxean dituzte partiduak. Gaur, egubakoitza, 19:00etan izango dira, Itur-

rrigorri frontoian: Gardoki eta Akizu kadeteek Amezketa Zazpitturri elkarteko pilotariak izango dituzte aurrez aurre. Errasti anaiek Zumarragako Beloki elkartekoak; eta Lasagabaster eta Altzolak, Elgetako Ozkarbi elkartekoak. Guztiak ere eskertu egingo dute herritarren berotasuna partidua jokatu bitartean.

Uriarte eta Oionek ere gaur bertan jokatu dute, Lazkaon. Eta Perez de Labeagak eta Uribarrenek bihar, zapatua, 16:30ean izango dute partidua eskoriatzarren aurka.

Aste honetan bost bikotetik hiruk etxean jokatu dituzte partiduak, gaur, 19:00etan

LABUR

Garaipenarekin hasi du liga Arlutz xake taldeak eta bihar, etxean jokatu du

Uste barik irabazi zuen partida Arlutz xake taldeak joan zen astean Errenteriako Fomento Culturalen aurka. 1,5 eta 2,5 puntu lortu zituen talde bakoitzak; ez hori bakarrik, oso gustura jardun zuen laukote aretxabaletarrak eta pozik itzuli ziren etxera.

Bihar, zapatua, Gasteizko Ruta de Europa taldea izango dute aurrez aurre. Talde gogorra hau ere, Ohorezko ligan jokatzeko dute gehientsuen bezalaxe, baina partida polita egiten saiatuko dira Arlutzeko kideak. Iralabarri plazako 5. zenbakian dute egoitza jokatu dute, 16:00etan. Herritarrek ikusi gura izanez gero zabalik izango dituzte ateak xake jokalariek, isiltasuna da eskatzen duten bakarra.

Sailkapeneko lehenengo postuan indartsu dago kadeteen lehenengo mailako taldea

Benetan liga dotorea egiten dabil UDA-Arizmendiko kadeteen lehenengo mailako taldea. Jokatu dute 15 partidu bakarra galdu du, eta beste bat berdindu, eta 40 puntu dituzte dagoeneko. Ez hori bakarrik, 65 gol sartu dizkiete aurkariei eta euren bost baino ez dizkiete egin. Joan zen asteburuan, esaterako, 4-0 irabazi zuten Martutene taldearen aurka. Benetan indartsu dabilta Vicente Calzonek entrenatzen dituen mutikoak, eta lehenengo daude sailkapenean, bigarrena den Elgoibarri lau puntu aterata.

Bihar, zapatua, etxean jokatu du Aitzgorri taldearen aurka. Mutikoen ilusio eta indarrarekin gozatu gura duenak 11:30ean, Ibarra futbol zelaira hurreratu besterik ez du.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA/Arizm.-Burumendi
Lehen mailako gazteak.
Domeka, 17:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-Aitzgorri
Lehen mailako kadeteak.
Zapatua, 11:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. - Zazpitturri
Aretxab. - Beloki
Aretxab. - Ozkarbi
Egubakoitza, 19:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 3 Mutriku 1
Preferentea.
Ikasberri 1 UDA 1
Bigarren mailako erregionala.
Eibartarrak 2 UDA/Arizm. 3
Ohorezko gazteak.
UDA/Arizm. 5 Eibartarrak 0
Lehen mailako gazteak.
UDA/Arizm. 4 Martutene 0
Lehen mailako kadeteak.
Ordizia 0 UDA/Arizm. 6
Ohorezko infantilak.

UDA/Arizm. 2 Vasconia 1
Infantil txikiak.
UDA/Arizm. 3 Aloña Mendi 1
Emakumezkoen liga.
Ordizia 4 UDA/Arizm. 4
Emakumezkoak F-8.
UDA 7 Urko 3
Alebinak.
Jostaldi 4 UDA-Mercedes
Goiko 1
Areto futbol.

Mobiliario
ARENAZA


- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABAETA
Tel.: 943 79 04 39




Loteria primitiboak
eta kinielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABAETA

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak



EGUSKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik
zure zerbitzura

ATREBENTZIAEZPADA/ Segurtasun ezak: lapurretak auto eta dendetan... gora egin dauela uste dozu?



FELIX KORTABARRIA
Jubilaue



ALAITZ ZUAZUBISKAR
Ikasle



RICHMAN NUÑEZ
Langillie



JOSUNE ZUGAZAGA
Langillie



VICENTE ARGAIZ
Langillie



BEGOÑA AMEZUA
Langillie

Ez dakit ba... Zeozer gehixau baietz esango nauke. Langabezia haundixe dauelako izengo da. Gaiñera, kanpotik jente asko etorri da, eta horreik danok euki-ko daue zerikusixe.

Entzun, entzun dot, baiñe neuri ez jat ezer pasau. Ni Oñatikue naz eta hillebetien bi tabernatan egin daue lapurretan. Neurrixek hartu arren norberan eskuetan ez dauela uste dot.

Igez autotik irratixe kendu eustien auzuen bertan. Bes-telakuen ez dot ezer euki, baiñe ezauketan dot arazuek izen dittuen jentie. Bai, igerten dala esango neuke.

Bilbokue naz eta kalien bertan be asko igerrri dutzou burrukak eta halako kontuek. Gure alkatiek, baiñe, segittuen konponduko dusku arazuek, astien bertan esan dauen moduen.

Niri neuri ez jat ezer pasau, baiñe entzuten da han eta hamen segurtasun falta dauela. Toketan jakonari neurrixek hartzen saiatuko da, baiñe ez dot uste norberan eskuetan dauenik.

Bai; Santanderkue naz, eta han igerrri dou. Horren aurrien neurri larrei be ezin da hartu: poltsiei hobeto heldu edo garaje baten sartzerakuen lelengo begiretu, baiñe gehixau ez.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZUHAITZ MOZKETAK Herrian egiten dituzten zuhaitz mozketen gainean luze egin daitekeela berba diosku herritar batek; orain, bi zuhaitzek kezkatu dute. Kurtzebarri eskolako patioan oker-oker egin da zeuden biak, arriskutsu. Hirigintza Sailean salatu, eta bota egin zuten bat; irtenbiderik samurrena herritarraren esanetan, baina bigarre-na egoera berean dago. Ea bota barik konpontzen duten arazoa. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Laugarren udaltzaina hasi zen lanean

Hain zuzen, 2003ko urtarrilean hasi zen lanean herriko laugarren udaltzaina: Iban da Silva aretxabaletarra. 23 urte zituen, eta hainbat azterketa gainditu ostean eman zioten udaltzain jantzia. Martin Garai, Alberto Cillaurren eta Jose Nuñezen udaltzain taldea osatu egin zuen Ibanek.



ASTEKODATUA

408

ZENBAKIA DU LORAMENDIKO BAZKIDE GAZTEENAK

Urtarrilaren 11n jaio zen eta Araitz Lizarriturri Etxenausia du izena Loramendi Eeko bazkide gazteenak. Gainerako herritarrek erabaki bera hartzea gurako lukete Loramendiko kideek.

BESTEKEESANA

Izugarrizko ilusioa daukate laburmetraia egiten dabilzan Atzegiko kideek. Dagoeneko hurrengo

zapatuan egin behar duten grabaketan pentsatzen daude. Benetan sakon bizi dute laburmetraiarean kontua.

Martxoaren 31 baino lehen Donostiako Atzegiko bulegora eraman behar da laburmetraia. Erabakia izango da Atzegiko kanpainarekin batera, nik uste Aste Santu ostean, apiril bukaeran edo maiatz hasieran. Uztailean Italian aurkeztuko ditugu nahiz eta hango lehiaketa urrian izan.

Gidoia atzetik aurrera egin genuen. Aretxabaletan Aratuste sendoak ditugu, eta hain zuzen egun horretan bukatuko den zerbait egitea pentsatu genuen.

JOKIN ANTZIA
Arrasate irratia/06-01-16

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Adi, behatzen gaituzte

Kuriosoa da nola aldizka badiren zenbait termino edo kontzeptu modan jartzen direnak. Eta nola preziatzen den edozein kudeatzailek berauek erabili beharra duen. Bestela ez litzateke eta inor bere mundutxoan. Eta emango luke, gainera, ez duela probetxuzko ezer egiten. Koitadua.

Aspaldiko partez behatokien txanda da. Ez dakit konturatu zaretan baina azken aldi honetan edozein gauzatarako behatoki bat martxan jartzea da modan dagoena; Versaceren arropak janztea baino "fashionagoa".

Badira behatokiak informazio eta telekomunikazioen gizar-tearen behaketarako. Baita zibergizar-tearen behaketarako ere. Edo eta krisien behaketarako sortu direnak. Osasuna eta emakumeak, biolentzia, globalizazioa, lehortek, etxebizitza, Europaren kanpo politika, basoak, elikagaien prezioak, giza eskubideak,

gazteria, hirugarren adina, ingurugiroa, migrazioak... edozertarako behatokiak daude. Bai hemen, eta baita mundu guztian ere. Badago bizikletaren behatoki bat ere. Hau Donostian.

Helburua ei da asuntu konkretu baten egoera behatu

(noski!), datuak lortu, analizatu eta informazio estratejiko baliotsuz beteta dauden txostenak argitaratzea, ustez, agintari burutsuren bati erabaki egokia hartzen lagunduko diotelakoan.

Goitik behera behatuta,

analizatuta eta klasifikatuta gaude. Baina gure arazoak ia berberak dira eta leku berberetan jarraitzen dute; baita apurtutako baldosak, gaizki aparkatutako automobilak, txakur kakak eta errepedeetako zuloak ere. Hauek konpondu ahal izateko ere behatokiak sortu behar ote ditugu edo nahikoa litzateke dagokionaren partetik proaktibitate eta erantzukizun sozial apur batekin?

"Goitik behera behatuta, analizatuta eta klasifikatuta gaude. Baina gure arazoak ia berberak dira"

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 20a / 240. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Lehengo Museo Eskolan jarri dute Musika Eskolaren behin betiko egoitza

IKER BARANDIARAN

Azkeneko bost ikasturteotan, Musika Eskola Luis Ezeiza eskolaren ondoko oktogonoetan egon da. Eta Udalak oktogonoetan haurtzaindegia egitea erabaki zuenez, lehengo Museo Eskolaren lokala egokitu eta haraxe eraman dute Musika Eskola.

Joan den maiatzean hasi ziren Museo Eskolaren lokala zena egokitzeko lanak. Horren aurretik, Musika Eskolako zuzendari Araceli Telletxeak euren premiak azaldu eta egoitza berria diseinatzen lagundu zuen.

Lanak abendura arte iraun zuten, eta urtarrilaren 9an ikasleek egoitza berria jaso zituzten eskolak. "Udalak presa zuen haurtzaindegiko lanak hasteko eta oktogonoetatik lehenbailehen irtetea komeni zitzaion. Azkenean, Gabonetako oporraldiekin batera lekualdaketa egin genuen, eta eskolek ez dute etenaldirik izan", azaldu zigun eskolako zuzendari Araceli Telletxeak.

INTSONORIZAZIO APROPOSA

Araceli Telletxeak azaldu zigun egoitza berria oktogonoetako lokalean baino ikasgela bat gehiago dutela; 11 gela guztira. 8 gela



Argazkian, Musika Eskolako irakasleetako batzuk eta zuzendaria. Giro ona dute lantaldean.

instrumentuetarako; 2, musika hizkuntzarako; eta 1, Musika Bandak erabiltzen duena, hain zuzen ere. Horrez gain, zuzendaria oso pozik dago eskolan jarri duten intsonorizazioarekin. "Musikene eskolan duten sistema bera erabili dute, eta oso egokia da",

Oraindik ez dute inaugurazio ofizialik egin, xehetasun batzuk

bukatzea falta zaielako, baina badute asmoa behin lan guztiak bukatuta halako ekitaldi edo ospakizunen bat egiteko.

ESKOLA GEHIENAK ARRATSALDEZ

Musika Eskola 15:30ean zabalitzen dute. Hala ere, goiz batzuetan irakasleek eskolak ematen dizkiete heldu batzuei. Gaur egun

eskolan 240 bat ikasle daude, eta horietatik 60tik gora dantzariak dabilta. Horiek, dantzariak, pilotalekuaren azpiko lokal baten batzen dira. Gainontzeko ikasleek eskolan ikasten dute.

Hala ere, lehengo eta oraingo eskolek duten gabezia bat da "emanaldietarako areto egokirik ez izatea. Pena da, baina

Gabonetako oporrak baliatu zituzten lekualdaketa egin eta etenaldirik ez eragiteko

Lekuz aldatu dute Musika Etxea, oktogonoetan haurtzaindegia egingo dutelako

aspaldi honetan Ibarraundiko aretoa erabiltzen dugu, eta txikia den arren, akustika oso egokia dauka. Bada zerbait".

Eskolako plaza guztiak beteta daude, eta hainbat lagun itxaroten daude. "Eskolak harrera ona dauka, eta ikasle eta gurasoak gustura daude!".

Bestalde, gaur, egubakoitza, Musika Bandak Donostiako dantborradan esku hartuko du zailtasunak dituen talde batekin, azkeneko urteetan egin ohi duen moduan.

Marin, Zarimutz eta Mazmelako lagunek telebista seinalea jaso eta Internet ibiltzeko errepikagailua jartzen dabilta

I.B.

Eskoriatzako hainbat elizatek ez da telebista seinalea ondo heltzen. Arazo handiena dutenak Marin, Zarimutz eta Mazmelako bizilagunak dira. Hori konpontzeko errepikagailua jartzeko lanak hasi dituzte.

Udalak aspalditik daki hainbat elizateetan telebista ondo ikusteko kableatu pribatu edo kolektiboak egin behar izan dituztela. Hala, Udalak konponbidea eman

gura izan dio arazo horri, eta Telecom Novatecno enpresari adjudikatu dizkio lan horiek.

Horren arabera, enpresa horrek hondeaketa egin, korrantea eraman eta instalazioa jarri beharko du. Horretarako, 75.000 euroko aurrekontua dauka.

ERREPIKAGAILUA AITXORROTX ALDEAN

Udalak jakinarazi digunez, errepikagailua Leintz Gatzagatik Zarimutz aldera jarriko dute, Atxorrotx menditik gertu; hain zuzen ere, Gorosarri baserriaren

gainetik. Udaleko ordezkarien esanetan, leku oso aproposa da. "Handik ikuspegi ona dago seinalea hartzeko, eta elizateetara bidaltzeko. Berez seinalea Oiz menditik hartuko dugu".

Lanak Eskoriatzan egingo dituzte eta Eskoriatzako Udalak eramango dituen arren, argindarra Leintz Gatzagako Artabilla baserriatik hartuko dute, hori da eta gertuen aurkitu duten aukera.

Lanok urtarrilean hasi zituzten eta Udalaren asmoa da bi

hilabete barru, martxo aldera, bukatuta egotea.

Horrez gain, jakinarazi dute telebista seinalea emateaz gain, Udalak enpresa horri eskatu

Helburu nagusia da telebista emisioa lortzea, baina wi-fi sistema ere egokituko dute

diola banda zabala ere abiarazteko. Horren bitartez, hiru elizateetan bizi diren lagunek internet erabiltzeko aukera ere izan dezaten.

Udalaren asmoa da martxo aldera errepikagailua jarrita eta indarrean egotea

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Astroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Erantzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28-00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdia (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

BIHAR, ZAPATUA, ARETO FUTBOLA KIROLDEGIAN
Ohorezko Ligako taldeak zapatuan izango du nor-gehiagoka AD Guingangoloren kontra. 1. mailako taldeak ere egun berean jokatu du. 16:00etan, San Pedro Kenciren kontra lehiatuko da. Gazteen taldeak, berriz, Adiazabal izango du aurkari, 11:00etan.

BIHAR, ZAPATUA, SASKIBALOI TALDEEN PARTIDUAK
2. mailako taldeak Dosa Salesianos izango du aurkari, 18:00etan; junior taldeak Carnicas San Marcialen kontra jokatu du, 16:00etan; eta kadeteek STL Lazkao Txiki izango dute aurkari, 11:15ean.

HILAREN 22AN UMEENDAKO FILMA EMANGO DUTE
Etzi, domeka, *Annaluise eta Anton* filma emango dute Ibarraundi museoa. 17:30ean izango da eta euro bat ordaindu beharko da. Emanaldi guztiak euskaraz egiten dituzte.

'MIHILUZE' LEHIAKETAN ESKU HARTZEKO DEIALDIA
ETBk *Mihiluze* lehiaketa abiarazi du. Hizkuntza jolasak eta umorea ardatz izango ditu lehiaketa horrek, eta Kike Amonarrirek aurkeztuko du. Udaleko Euskara Sailak bat egin du asmo horrekin eta ahalegina egiten dabil Eskoriatzan hirukote bat osatzeko. 18 urtetik gorakoak behar dituzte, umoretsuak eta berritsuak. Interesatuak jo dezatela Udaleko Euskara Sailera edo dei dezatela ETBra, 943 01 17 84 telefono zenbakira.

Antoni Martinezek irabazi du dendarien Gabonetako zozketa

DEIANE ARRIETA/IKER BARANDIARAN

Dendarien Gabonetako saria Antoni Martinez eskoriatzarrak irabazi du. Martitzenean eman zioten saria Pagaldai harategian. Artikulu hau irakurri orduko, Martinezek gastatuta izan beharko ditu 1.500 euroak. Afari ederra egitekoan egongo da, bada.



Argazkian, Antoni Martinez eta Pagaldai harategiko arduraduna.

Aurtengoa da bigarren aldia merkatariek Gabonetan kanpaina abiarazten dutena. Gabon aurreko egunetatik Errege osterara arte bezeroei hainbat txartel banatu zizkieten. Orain zozketa egin dute eta irabazleari sari txukuna eman diote: hiru egunetan herriko saltokietan gastatu beharreko 1.500 euro, eta bi lagunendako afaria. Antoni Martinezek Pagaldai harategian hartu zuen txartel sariduna, eta astelehenean jakin zuen irabazlea bera zela.

Martinezek GOITBri esan zion errez izango zuela diru kopuru hori hiru egunetan gastatzea.

"Batez ere familiarendako arropa erosiko dut, eta gero beste gauzatzu batzuk". Horrez gain, gura duen lagunarekin afari goxo bat egiteko aukera ere izango du.

Bigarren aldia da herriko mer-

katariek Gabonetan halako kanpaina abiarazten dutena. Aurtent, gainera, 500 euro gehiago batu dizkiote sariari. Datorren urtean kanpainari berrikuntzak egin gura dizkiote.

Marin, Zarimutz eta Mazmelako auzotarrek, alegazioa AHTri

i.B.

AHTren lanak direla eta, Marin, Zarimutz eta Mazmelako auzotarrak eta Udala oso arduratuta daude Espainiako Sustapen Ministerioak lurrak desjabetzeko prozedura egiten dabilen moduarengatik. Biek prozedura hori atzeratzea eskatu diote Ministerioari.

Joan den astean jakinarazi genuen Espainiako Sustapen Ministerioak AHT egiteko lur desjabetzeak egingo zituela. Kaltetutako auzotarrek Espainiako Buletinean izan zuten horren berri, Ministerioa ez zen-eta euren gaitan zuzendu. Hala, joan den zapatuan bukatu zen alegazioak aurkezteko epea, eta ez Udalak ezta

auzotarrek ez zuten horretarako denbora nahikorik izan.

Udalari dagokionez, joan den astean jakinarazi zigun Sustapen Ministerioari eskatu diola desjabetzearen prozedura atzeratzeko. Udalaren esanetan, hori eskatzeko arrazoia da "Udalak benetako proiektua jaso ez duela, desjabetze aktak akatsak dituela eta Ministerioak gauzak ez dituela ondo egin".

AUZOTARREK, AHO BATEZ

Buletinean argitaratu duten informazio urriaren arabera, AHTk hiru elizateotako auzotarrak kaltetuko ditu: Maringoak, Zarimuzkoak eta Mazmelakoak.

Horren arabera, elizate horietako 18 laguni lurrak desjabetu-

ko dizkiote. Horregatik, joan den astean batzarra egin zuten alegazio bateratua aurkezteko, eta hiru elizateotako bizilagun guztiak sinatu zuten alegazio hori, "guztiok garelako kaltetuak".

Ministerioari eskatu diote alegazio epea atzeratzeko eta informazio gehiago bidaltzeko. "Udaletxera jo genuen informazio eske, baina informazio hain urriarekin ezin dugu ganorazko alegaziorik egin". Horregatik, Ministerioari honako hau eskatu diote: proiektua eskala handiagoan bidaltzeko, ingurumen azterketarekin, neurri zuzentzaileekin eta neurri konpentsatzaileekin, azken horiek egongo balira.

Horrez gain, Espainiako Ingurumen Sailera jotzeko asmoa dute.

LABUR

Gurasoek oinarritzko euskara ikasteko ikastaroa

Udaleko Euskara Sailak eta herriko hiru ikastetxeek *Euskara ikasten seme-alaben bide-lagun* ikastaroa abiaraziko dute. Ikastaroa 20 ordukoa izango da, eta martitzen eta egunetan egingo dute otsaila eta martxoa. Kultura etxean emanango dute, 14:30etik 16:00etara.

Besteak beste, abestiak, jolasak, zenbakiak eta beste erakutsiko dizkiete HH eta LHko 4. maila arteko ikasle-en gurasoei. Hilaren 27a aurretik eman behar da izena, ikastetxeetan.

Hainbat erakusketa egingo dituzte Ibarraundin

Ibarraundi museoko arduradunek jakinarazi digute otsailera hainbat erakusketa prestatzen dabiltzala. Bateatik, Lorentxo Altube arrasa-tearraren bilduma hilaren 2tik 16ra bitartera jarriko dute ikusgai. Baserrietako erremintak eta musika tresnak, besteak beste.

Horrez gain, otsaileko azkeneko astean kontsumoaren gaineko erakusketa jarriko dute. Arropen, oinetako eta elikagaien etiketen gainekoa izango da.

Haurtzaindegia egiteko lanak hasi berri dituzte

Astean hasi dituzte partzuegoko haurtzaindegia egiteko lanak. Luis Ezeiza eskolaren ondoko oktogonoetan egingo dute 0 eta 3 urte bitarteko umeei zuzendutako zerbitzu berri hori.

Lan horiek 295.900 euroko aurrekontua dute, eta Aralan enpresak egingo ditu. Bestalde, haurtzaindegia kanpoan beste lan batzuk egingo dituzte: aterpea konpondu, patioa itxi... Baina horrek beste aurrekontu bat izango du.

FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001

Txirritola

ARAMAIO / Eguena / 2006ko urtarrilaren 20a / 178. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Udalak eta lurjabeek, biek hala biek aurkeztu dizkiote alegazioak AHTri

UBANE MADERA

50 bat lagun elkartu ziren joan den barikuan Aramaion, Abiadura Handiko Trenari alegazioak aurkezteko. Aramaio Udalak ere aurkeztu dizkio. Oro har, informazioa falta zaiela alegatu dute. Datorren martitzenean etorriko dira okupazio aktak jasotzera.

40 lagunek baino gehiagok sinatu zituzten alegazioak; AHT egiteko desjabetu beharreko lursailak direla eta egin dituzte alegazioak. Hain zuzen ere, Eskoriatza eta Arrasate artean trenaren ibilbidea erakitzeke zundaketak egin behar dituzte eta horiek egiteko desjabetu behar dituzte zenbait lursail; alegia, orain dela hiru urte baimena eman ez zuten lursailetan egin behar dituzte zundaketa horiek, gero trena eraiki ahal izateko.

Eta lursail horien okupazio aktak urtarrilaren 24an jasoko dituzte; datorren martitzenean, hain justu ere.

EZ SINATZEKO ASMOA

Madrilgo Sustapen Ministerioak hitzordua egin du lursail horien jabeekin martitzenerako (zortzi jabe dira Aramaioak). Hitzordua Udaleko osoko bilkuren aretoan da, goizez zein arratsaldez.

Dena dela, Aramaioko lurjabeek erabaki dute ez dituztela aktak sinatuko; betiere, abokatuak bestelakoa esaten ez badute.

Hori bai, aktak sinatu edo ez, proiektuak aurrera egingo du eta lurren desjabetzeak ere bai; Madrillgo gobernuak Abiadura Handiko Trena interes orokorreko proiektu moduan izendatuta du eta.

Edozelan ere, lurjabeek aurkeztutako alegazioetako batean eskatu dute okupazio aktak bertan behera uztea; beraz, hori onartzen badu Sustapen Ministerioak, bertan behera geratuko litzateke datorren asteko hitzordua. Baina hori zail samarra izango da.

ALEGAZIOEN NONDIK NORAKOAK: UDALA Alegazioei dagokienez, Mertxe Mondragon alkateak eta Andres Osinaga zinegotziak laburtu dizkigute Udalarenak. Esan digute oro



Argazkiko neskatilak AHTren kontrako gutuna eta eskaera aurkeztu diote alkateari; Maitane, Miren, Eider, Itziar eta Maider dira.

har, Udalak trenaren proiektuaren gaineko informazio gehiago eskatu duela: ateratako lurak botatzeko zaborteak non egingo dituzten, herriko ibaiarengan zein eragin izango duten obrek... Baita ere, jakin nahi du zein kalte eragingo dien obrek herriko zenbait iturbururi eta zer gertatuko den lanak egiteko eraiki edo erabili beharko dituzten baserri-bideekin. Horrez

Oraingoz, lurjabeek ez dituzte okupazio aktak sinatuko datorren martitzenean

gainera, trenaren oinarriko proiektua ere eskatu dio Udalak Sustapen Ministerioari, eta baita ere alegazioak egiteko epea luza dezatela, berez, ez dutelako nahikoa asti izan.

Horrez gainera, jakinarazi digute Udala badabilela geologo batzuekin elkarlanean uren gaineko afekzioa zenbaterainokoa izango den ikusteko.

Hasi besterik egin ez den ibilbidea:

Orain dela hiru urte egin zituzten lehenengo zundaketak, baina zenbait herritarrek ez zieten baimenik eman. Orain, falta zaizkien zundaketa horiek egin nahi ditu Madrillgo Sustapen Ministerioak, gero lanak egiten hasteko.

Aramaion, zortzi lurjabeek ukatu zuten baimena; orain, haien lursailak desjabetu nahi dituzte, zundaketak egiteko.

Aramaioko lurjabeek ez diete inolako

jakinarazpenik bidali Madrildik. Baina, Aramaio Udalari esker, jakin dute euren zerrenda eta okupatu beharreko lursailena argitaratu dutela buletin ofizialean. Gainera, 15 eguneko epea eman zieten alegazioak egiteko eta jakinarazi diete datorren martitzenean etorriko direla okupazio aktak jasotzera. Justu eta larri, baina alegazioak egin dituzte lurjabeek. Orain, martitzenean zer gertatzen den ikusi behar.

Bestalde, alkateak gogorarazi digu Udalak 1999an ere egin zituzten alegazioak AHTri.

LURJABEEN ALEGAZIOAK

Lurjabeek dagokienez, lehen esandako moduan, 40 lagunetik gora sinatu dituzte alegazioak. Aramaioko lurjabeekin elkartu dira Eskoriatzakoak eta Arrasatekoak, indarrak batu eta guztiek alegazio berak aurkezteko. Gainera, oraingo desjabetze prozesuan sartuta dauden lurjabeek gainera, etorkizunean kaltetuta izan daitezkeen lurjabeek ere bat egin dute ekimenarekin. Aramaioaren kasuan, 12-13 bat herritarri eragingo die trenaren lanak.

Oraingoz, desjabetze prozesuaren gaineko eta bestelako lanen gaineko informazio zehatzagoa eskatu dute, batez ere, desjabetu beharreko lursailen planoak. Eta aurkeztutako alegazioak argitu artean, okupazio aktak bertan behera uztea ere eskatu dute.

UMEEN EKIMEN BITXIA

Bestalde, AHTrekin lotuta, Aramaioko neska talde batek gutuna aurkeztu dio alkateari esanez ez dutela halako trenik nahi. 10-11 urteko neskatilak dira. Kontatu digute gurasoen bitartez izan dutela trenaren berri; proiektua ez zitzaizela bat ere gustatu eta trenaren kontra zerbait egitea pentsatu zutela. Hala, pankarta bat egin eta eskolan erakutsi zuten, ikaskide eta irakasleek egeeraren berri izan zezaten. Orain, berriz, idatzia bidali diote Udalari. Gainera, bi orri pasatxo sinadura batu dituzte idatzi horri babes emateko. "Ez dugu gure herrian trenik nahi, zergatik mendiak, landareak... apurtzen baititu, ez ditugu domeka on gehiago izango". Hori esan diote alkateari. Era berean, eskatu diote euren eskaera Lehendakariari helarazi diezaion. Mertxe Mondragonek, gutuna hartu eta umeekin batzarra egin du. Haien kezka ikusita, trenaren nondik norakoak esplikatu dizkie.

Hori ikusita, badirudi, Abiadura Handiko Trenak orain arteko bestelako proiektu batzuk baino kezka handiagoa piztu duela. Aramaion, behintzat.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deltu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

DOMEKAN, ZINEMA

Jean-Jacques Annaud zuzendari frantsesaren *Dos Hermanos* filma aukeratu dute oraingo domekarako. Anaiak diren bi tigrenen gaineko filma da. Lehena, *El oso* filma egin zuen zuzendari berarena. Filma batean ohikoa den istorioa kontatzeaz gainera, dokumental itxura ere badu filma horrek. Umeen dako zein nagusiendako gomendagarria da. 17:00etan hasiko da saioa.

ASTELEHENEAN, TURISMO

Astelehenean joango da KZguneko tutorea Aramaioa. Betiko moduan, goizez izango da, 09:00etatik 13:00ak arte. Gainera, 11:00etatik 13:00ak bitartean, *Asteburu bat Euskal Herrian* izeneko ikastaroa emango du.

SANTA AGEDA, AURRERATUTA

Ohiturari jarraituz, otsailaren 4an Santa Ageda ospatzeko eguna da. ospatzeko eguna da. aurten, baina, zapatua tokatzen da. Hori dela eta, San Martin Eskolatik abisatu digute hitzordua aurreratu eta barikuan ospatuko dutela egun hori.



Argazkian, Aramaioko oilategi bat; oraingoz ez dago kezkatzeko arrazoirik.

Errolda eskuratu eta gero egingo dituzte analisiak

UBANE MADERA

Joan den azaroan bidali zuten Arabako Foru Aldundiak hegaztien gripea dela eta Aramaion hartu beharreko neurrien gaineko dekretua. Haren arabera, herriko oilategien errolda egin beharra zegoen Aramaion; gero, zerrenda horren arabera analisiak egiten hasteko.

Udaletik jakinarazi digutenez, dagoeneko batu dute herriko oilategien errolda hori. Eta esan digute laster bidaliko dutela zerrenda Foru Aldundira.

Diputazioko Nekazaritza Sailetik, berriz, jakinarazi digute azaroan hitzartutako protokolo horrekin aurrera egingo dutela; argitu digutenez, Eusko Jaurlaritzatik bideratutako protokoloa

da. Eta hona Europatik bideratuta iristen da.

Protokolo horren arabera, Aramaioko hegaztien gaineko errolda jaso bezain laster analisiak egiten hasiko dira.

Deña dela, horrekin batera jakinarazi digute, oraingoz, ez dutela gai horren gaineko bestelako informaziorik emango, herritarren artean alarma sorrazten duelako. Hala, bakarrik abisatuko dute analisisiren batean kasu positiboren bat atzematen badute.

Halaber, Diputazioko Nekazaritza Sailak kontatu digu Arabako zenbait gunetan dagoeneko egin dituztela analisi horiek eta oraindik ez dutela inolako arriskurik atzeman. Araban, batez ere, uretako hegaztiak eta baserrietako hegaztiak kontrolatzen dabilta.

Aurrekontuak aztertuko dituzte datorren astean

UBANE MADERA

Datorren eguaztenean, hilak 25, urtarrilari dagokion osoko bilkura egingo du udalbatzarrrak. Alkateak aurreratu digu bestelako gaien artean, aurrekontuak lantzeko asmoa dutela. Aurreratu digu, baita ere, diru gutxi duela Udalak eta lehentasunak zehazten dabilzala.

Mertxe Mondragonek esan digunez, pentsatuta dute aurrekontuen gutxi gorabeherako banaketa zela egin. Hirigintzarako izan ezik, gainerako batzorde guz-

tiendako partidak zehaztuta dituzte. Hirigintzari dagokionez, sail horretan aurreikusi dituzte 2006rako inbertsiorik handienak. Eta, hain zuzen ere, inbertsio horiek aztertzen dabilta, lehentasunak zehazteko. Izan ere, alkateak esan digu, beste urtebetez, diru gutxi duela Udalak 2006an gastatzeko, eta beraz, ondo pentsatu beharko dutela diru horren banaketa. Hori guztiori landuko dute datorren astean. Alkateak esan digu akaso ezin izango dutela aurrekontu osoa landu, baina besterik ez bada, aurrerapentxo bat landuko dutela. Batzarra 18:00etan hasiko da.

LABUR

Alaiak elkarteak antolatutako mus txapelketan parte hartze handia izan zuten

Zapatuan, hilak 14, mus txapelketa jokatu zuten erretiratuen egoitzan. Txapelketa haren emaitzak helarazi dizkigute orain. Esandakoaren arabera, Ramon Altuna eta Angel Astondoak osatutako bikoteak irabazi zuten. Kopa eta urdaiazpikoa irabazi zituzten. Martin Arana eta Fermin Ibabe, berriz, izan ziren bigarrenak. Haien bakailaoa eta ardo botila irabazi zituzten. Eta hirugarren saria Kepa Mondragonek eta Jose Mari Ariasek irabazi zuten: gazta eta ardoa.

Inauguratu dituzte Arexola auzoan egin dituzten berrikuntza lanak

Joan den barikuan, Herri Administrazioiko diputatu Isabel Fernandez de Castillo Arexolan izan zen, han egindako lanak inauguratzen. Zoladura lanak, sarrerako bidea handitu, elizako paretak konpondu eta argindar azpiegiturak lurperatu dituzte. Hori guztia erakusten izan ziren, besteak beste, Mertxe Mondragon alkatea eta Arexolako Agustin Arrizabalaga alkatea. 389.022 euro kostatu da guztia. Diputazioak 162.769 euro ordaindu ditu.



Karidadeko Benta, Txirritola elkartearen eskutik

Datorren otsailaren 3an, barikua, Karidadeko Benta musika taldea Aramaion izango da, Txirritola Euskara Elkartearen ekimenez. 22:00etan izango da kontzertua, kultura etxean. Sarrerak egunean bertan erosi beharko dira, bost euroren truke. Karidadeko Benta osatzen dute Jon Maiak, Aran Santamariak, Inazio Tolosak, Jon Manzisidorrek, Imanol Manterolak eta Domentxu Uzinek. Maialen Lujanbio eta Xabier Amuriza bertsolariek ere kolaboratzen dute. Tradizio aitindaria eta aire berriak uztartzen ditu talde horrek, garaiko kopen ondoan hainbat kultura eta estilotako doinuak. / U.M.

Urrlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 20a / 34. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

TXIRRINDULARITZA/ Euskal Bizikleta Gatzagan

“Ispasterren hasi eta Gatzagan amaituko da hirugarren etapa, herritik birritan igarota”

XABIER URTZELAI

Euskal Bizikletako antolatzaileek atzo aurkeztu behar zituzten Euskal Bizikletak Gatzagan egingo dituen bi etapak. Esku artean duzuen ale hau eguna baino lehenago amaitu behar dugunez, Alberto Altubek aurreratu dizkigu aurkezpeneko xehetasunak.

Maiatzaren 31n hasiko da aurtengo Euskal Bizikleta, eta ekainaren 4an amaituko da. Joan den urtean aurreratu genizuen moduan, bost etapa horietatik bik lotura zuzena izango dute Gatzagarekin, hirugarren etapa bertan amaituko delako (ekainak 2), eta baita laugarren etapa hasi ere. Horiek guztiak azaltzeko hitzordua zuten atzo arratsaldean Euskal Bizikletako antolatzaileek, Gatzagako udaletxean.

HIRUGARREN ETAPAREN IBILBIDEA

“Ispasterren (Bizkaia) hasiko da Euskal Bizikletako hirugarren etapa, eta txirrindulariak Kanpanzarretik sartuko dira Gipuzkoara. Arrasatetik Gatzagara etorriko dira, errepide zaharretik (Antolatzaileek hasieratik agindu bezala), eta handik Legutianora egingo dute. Legutianotik Kurtzetara, portua jaitsi eta han-



Euskadiko Itzuliko etapa bat Arantzazun amaitu zen joan den urtean; Gatzagak hartuko du errelebu, Euskal Bizikletarekin.

dik Untzillara joango dira, Aretxabaletara jaisteko. Eta azken kilometroetan, bigarren aldiz igoko dute Gatzagara”.

HURRENGO ETAPAREN HASIERA

Euskal Bizikletako laugarren eta-

pa ere Gatzagan hasiko dute, eta horri esker giro aparta egongo da bertan. Hori zen Dorletako Amaoeko gura zutena, hurrengo eguneko etapa ere herrian hastea: txirrindulari ezagunak hara eta hona sinadurak egiten, antola-

tzaileak lanean, taldeetako zuzendariak, mekanikoak... lasterketetako giroa, azken batean.

Komunikabideek lan egiteko tokia izan dezaten, eta proba hobeto antolatu ahal izateko antolatzaileen asmoa da Venta Friako

Agindutako moduan, Gatzagako errepide zaharretik igoko dira txirrindulariak, birritan

Venta Friako eraikina kazetariendako egokitu gura dute antolatzaileek

eraikina horrelako kontuetarako egokitzea. Gainera, automobilak bertara joateko Arlabango gaina baino lehenago dagoen zubian ezkerretara egin beharko dute, trenaren ibilbide zaharra erabiliz. Horretarako, Koldo Azkoitia diputatuak ziurtatu die ordurako ibilbide hori egokitu egingo dutela, automobilak behar den bezala ibil daitezten. Hala, Gatzagan hasiko duten laugarren etapa horretan ziklistek Arabarako bidea hartuko dute, Agurainen egongo da-eta helmuga.

Hilaren 28an sagardotegira joateko irteera antolatu dute

X.U.

Gatzagako lagun koadrila batek irteera antolatu du datorren zapatarako, hilak 28. Dagoeneko hasi dira sagardotegietan kupelak irekitzen, eta gatzagarrek ez dute aukera hori galdu gura.

Sagardotegirako irteera ez du Gatzagako talde jakin batek antolatu, lagun koadrila baten ekimena izan da. Eta, gatzagar guztiak

daude gonbidatuta, besteak beste, aurtengo sagardoa probatzea helburu duen irteerara. Horretarako, oraingo domeka, hilak 22, izango dute izena emateko azken eguna, Labidea dendan. Dagoeneko badakigu hogeitaz hamar lagun baino gehiago animatu direla, baina seguru irteera horretara herritar askoz ere gehiago joango direla, normalean azken egunetan ematen du-eta jendeak izena. Gainera, badago aurrekaririk, orain dela hiru urte inguru sagardotegira

egin zuten bidaiak sekulako arrakasta izan zuen-eta.

PILOTA DOMEKAN

Gabonetan Arrasatekoen kontra lehiatu eta gero, Gatzagako Pilota Taldeak beste txapelketa bat antolatu du oraingo domekarako. Oraingoan, baina, Gatzagako pilotari gazteek Otxandiokoak izango dituzte kontrario. Goizeko 10:30ean hasita izango dira bi herrietako pilotariak nor baino nor gehiago.



Hilaren 28an txotx egingo dute gatzagarrek.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

RADIO ELECTRICIDAD LEGAZPIA

ORELEO
Gotzon Beltia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tallera:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

MAKAI
Koop. Eik.

Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatzeko sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Lorentzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 · ESKORIATZA
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22

Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Santa Kurtz 24, behea - Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

"Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 79 86 21 zenbakira"

igo autobusera



**Astelehenetik
egubakoitzera**

Goizeko 10etatik aurrera

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian
Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com